Zortzi puntutan. Uribe Kostako Bertsolari Txapelketa (2016)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2267-zortzi-puntutan.-uribe-kostako-bertsolari-txapelketa-2016>

Kokapena: Bizkaia

Hedadura: Uribe-Kosta

Txapelduna: [Jone Uria Albizuri](#)

Faseak/Saioak:

[2016-03-05 Leioa Sariketa 19:00](#)

[2016-03-05 Leioa Sariketa 20:00](#)

[2016-03-05 Leioa Sariketa 21:00](#)

[2016-03-12 Getxo Sariketa 19:00](#)

[2016-03-12 Getxo Sariketa 20:00](#)

[2016-03-12 Getxo Sariketa 21:00](#)

[2016-03-19 Plentzia Sariketa 13:00](#)

[2016-03-19 Plentzia Sariketa 17:00](#)

[2016-03-19 Plentzia Sariketa 18:00](#)

[2016-03-19 Plentzia Sariketa 21:30](#)

C. Lehiaketak

Altzako Bertso-Paper Lehiaketa (6. 2016. Donostia)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2305-altzako-bertso-paper-lehiaketa-6.-2016.-donostia>

Kokapena: Altza

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Bizarrain Kultur Elkartea

Saridunak:

Amaia Hermoso Larzabal, “Maniki batenak”

Argazkizkiak lehiaketa (5. 2016. Aretxabaleta)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2402-argazkizkiak-lehiaketa-5.-2016.-aretxabaleta>

Kokapena: Aretxabaleta

Hedadura:

Antolatzailea: Loramendi Kultur Elkartea

Saridunak:

- 1.
2. Aiora Padilla, “Alzheimerra”
3. Aitor Bengoa, “Beldurra”

Arrasate Bertso-Paper Lehiaketa (29. 2016. Arrasate)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2278-arrasate-bertso-paper-lehiaketa-29.-2016.-arrasate>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Debagoiena

Antolatzailea: AED Kultur Elkartea

Saridunak:

LH 5-6: 1. saria: Bertso eskolako taldea: Ane Enbeita, Naiara Ibabe, Garazi Barrena, Beñat Barrena, Eñaut Lasaga, Garazi Urrutia, Irati Martinez, Ane Zeziaga eta Ixiar Okina, “Telebista” bertso sortagatik. 2. saria: Saioa Coronado, “Pobrezia” bertso sortagatik.

DBH 1-2: 1. saria: Olatz Zuazubiskar, “Ispiluari begira” bertso sortagatik. 2. saria: Hutsik geratu da.

DBH 3-4: 1. saria: Haizea Arana, “Zabaldur behingoz begiak” lanagatik. 2. saria: Oihana Aranari, “Inspirazio gabeko poetari” bertso sortagatik.

Batxilergotik gora: 1. saria: Ane Zuazubiskar, “Itzal bati” lanagatik. 2. saria: Marixe Ruiz de Austri, “Galdu duenari” lanagatik.

Arri-Botx bertso paper lehiaketa (2. 2016. Ondarroa)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2308-arri-botx-bertso-paper-lehiaketa-2.-2016.-ondarroa>

Kokapena: Ondarroa

Hedadura: Ondarroa

Antolatzailea: Bizkaiko Bertsozale Elkarte eta Ondarruko Bertso-eskola

Saridunak:

Txikita taldea:

-Saridune: Maider Beitia

-Aipamena: Andrea Eizagirre Ibarloza

Kirrixki taldea:

-Saridune: Egoitz Urresti

-Aipamena: Urtza Martija

Ziaboga taldea:

-Saridune: Koldo Bilbao Azpiazu

-Aipamena: Aiora Larrañaga Arauko

Ubera taldea

-Saridune: Aiora Iriondo

-Aipamena: Nayra Agirretxea

Mutsara taldea:

-Saridune: Ane Rodríguez

-Aipamena: Ane Gomez

Irabazle Orokorra: Jon Martinez de Azagra Martinez de Luco

Barañaingo Euskarazko Haur eta Gazte Literatura Lehiaketa (27. 2016. Barañain)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2418-baraaingo-euskarazko-haur-eta-gazte-literatura-lehiaketa-27.-2016.-baraain>

Kokapena: Barañain

Hedadura: Barañain

Antolatzailea: Barañaingo Udala. Euskara

Saridunak:

Lehen Hezkuntza:

Ningmin Zurbano Saenzen “Festa”, Hegoi Bueno

Orradreren “Nire herri polita”, Beñat Astiz Isasiren

“Berdintasuna” eta Izadi Biurrun Mendiaren “Euskal Herria”.

Bigarren Hezkuntza:

Ainhua Acinas Rodriguezen “Saskibaloia” eta Aitziber Ziaurritz Arrartiaren “Nire bizitza”.

Basarri Saria (32. 2016. Zarautz)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2353-basarri-saria-32.-2016.-zarautz>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Zarauzko Udala

Saridunak:

1. Ekaitz Goikoetxea. “Naizenaren izenean”

2. Ekaitz Goikoetxea. “Olatu bat...”

Baztan Bidasoako Bertso-paper Lehiaketa (29. 2016. Bera)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2313-baztan-bidasoako-bertso-paper-lehiaketa-29.-2016.-bera>

Kokapena: Nafarroa

Hedadura: Baztan Bidasoa

Antolatzailea: Bortzirietako Bertso-Eskola, Berako Udala. Kultura

Saridunak:

- A maila (10 urte artekoak)
 1. Saria: Mendira joan gara. Amaur Goñi Elortza (Bera)
 2. Saria: Herriko bestak. Asier Barberena (Baztan)
- B maila (11-14 urte artekoak)
 1. Saria: Bizi berri baten bila. Ekhiñe Zapiain Arlegi (Bera)
 2. Saria: Bortxaketa. Ninbe Urtxegi Urre (Igantzi)
- C maila (15-18 urte artekoak)
 1. Saria: Herria eta hizkuntza. Olaia Inziarte (Oronoz)
 2. Saria: Jaiotza-Heriotza. Peio Iriarte Etxeberria (Irun)
- D maila (18 urtetik goitikoak)
 1. Saria: Asmatu huen Joxe Manuel. Julen Zelaieta Iriarte (Bera)
 2. Saria: Behobia Donostiako nobatoa. Aitor Arotzena Albitzu (Lesaka)

Aipamena: Barrote artetik txoriari. Joseba Aranibar Almandoz (Bera)

Beasain Idazlehiaketa (26. 2016. Beasain)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkako/view/2340-beasain-idazlehiaketa-26.-2016.-beasain>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Beasain

Hedadura: Goierri

Antolatzailea: Beasaingo Udala

Saridunak:

1. Hodei Munduate : “Guk gurea”
2. Uxue Iruretagoiena : “Amonaren kontakizunak”

Bermeoko Bertso-paper Lehiaketa (12. 2016. Bermeo)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkako/view/2334-bermeoko-bertso-paper-lehiaketa-12.-2016.-bermeo>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Bizkaia

Hedadura: Bermeo

Antolatzailea: Bermeoko Udala. Euskara Zerbitzua

Saridunak:

1. maila (11-14 urte artekoak): Matxalen Sanz.
Aipamenak: Haizea Viger, Markel Navarrete, Izaro Isasi, Irati Esteban, Lexuri Etxabe eta Iker Bilbao
Ikastetxe bakoitzeko saridunak: Laiene Oleaga, Maria Arroita eta Ainhoa Rivera.
2. maila (15 eta 18 urte artekoak): Irati Rodriguez eta Itxaso Jurado.
Aipamenak: Ibai Abaunza

Bertsolaritzen (19. 2016. Mendata)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2399-bertsolaritzen-19.-2016.-mendata>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Bizkaia

Hedadura: Busturialdea

Antolatzailea: Oilargane Elkarte

Saridunak:

A maila (12 urtera artekoak):

- 1. saria: Oier Magunagoikoetxea
- 2. saria: Laiene Oleaga

B maila (13-14 urtekoak):

- 1. saria: Asier Beeitia
- 2. saria: Ander Azkarai

D maila (15-18 utekoak):

- 1. saria: Saloa Iturbe
- 2. saria: Imanol Ziluaga

AIPAMENAK:

- A maila: Diana Boros, Maddi Miguela, Uliana Troshina, Eneko Otero, Leire Zallo, Maimuma Manneh, Unai Ortube, Oihane Zabala, Aritz Urkidi, Aitor Gondra
- B maila: Ibai Bengoa, Peio Dominguez, Zoartze Lexartzegi
- D maila: Oihane Abete, Jon Garatxena

Bertsomovieda! (5. 2016. Beasain)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2307-bertsomovieda-5.-2016.-beasain>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Arrano Kultur Elkarte. Beasain

Webgunea: www.bertsomovieda.com

Saridunak:

Helduen mailan:

- Lehenengo saria: “Zeuk erabaki”: Jon Martin eta Izaskun Bernedo.

- Aipamena: “Kantuz egin dugu zutaz oroitzean”: Aitor Lanas, Ekaitz Goikoetxea eta Garazi Zabaleta.

Gazteen mailan:

- Lehenengo saria: “Begirada bakoitzean”: Joane Aldalur, Oihana Arana, Haizea Arana, Aner Peritz, Xubane Garai, Eider Iturralde, Olatz Zuazubiskar eta Aroa Arana.

- Aipamena: “Alferraren astea”: Oiartzungo Elizaldeko bertso eskolako ikasleak.

Mailaz kanpoko sariak:

- Publikoaren saria: “Donosti Cup 2005”.

Bota Bertso Bat! Lehiaketa (9. 2016. Zumaia)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2394-bota-bertso-bat-lehiaketa-9.-2016.-zumaia>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Zumaia

Hedadura: Zumaia

Antolatzailea: Zumaia Bertso-Eskola

Saridunak:

Miguel Angel Aramberri Udabe: “Erabaki”

Bota Bertsoa! (2. 2016)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2274-bota-bertsoa-2.-2016>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Buruntzaldea

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Dobera Euskara Elkarte eta Hernaniko Bertso-Eskola (Iraulio Panttalone)

Saridunak: Jaione Rodriguez eta Jose Alberto Santiago

Egile Berrientzako Literatur Lehiaketa (26. 2016. Iruñea)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2354-egile-berrientzako-literatur-lehiaketa-26.-2016.-iruea>

Maiztasuna: Irregularra

Kokapena: Iruñea

Hedadura: Nafarroa

Antolatzailea: Iruñeko udala

Saridunak: BERTSO-PAPERAK:

1. Julio Soto Ezcurdia: “Nor naiz?”
 2. Julen Zelaieta Iriarte: “167/1937; isiltasunak itxi arazi zuen auzia”
 3. Eneko Fernández Maritxalar: “Ongi etorri, Lur!!!”
- Aipamen berezia: Simon Macias Martínez de Lizarrondo: “Ahanzturan bizi gaitezen”

Garriko Bertsolari Eguna: Bertso Idatzien Sariketa (29. 2016. Muxika)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2318-garriko-bertsolari-eguna-bertso-idatzien-sariketa-29.-2016.-muxika>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Bizkaia

Hedadura: Busturialdea

Antolatzailea: Garriko Bertso-Eskola

Saridunak:

A maila (12 urtera artekoak):

- 1. saria: Jone Oararteta
- 2. saria: Maimuma Manneh

B maila (13-14 urtekoak):

- 1. saria: Janire Arrizabalaga
- 2. saria: Aimar Gonzalez

D maila (15-18 urtekoak):

- 1. saria: Lander Unzalu
- 2. saria: -hutsik

AIPAMENAK:

- A maila: Diana Boros, Jokin Agirre, Ugaitz Bilbao, Naia Foruria, Maialen Cendagortagarza, Maite Albizu, Ander Ansotegi, Leire Zallo, Markel Navarrete, Arai Jaio.
- B maila: Koldobika Puente, Markel Bilbao, Agurtzane Gerrikabeitia, Peio Dominguez, Ager Alzola

Gaztelekuko Bertso-paper Lehiaketa (7. 2016. Oñati)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkako/view/2271-gaztelekuko-bertso-paper-lehiaketa-7.-2016.-oati>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Oñati

Antolatzailea: Oñatiko Txinparta Bertso-Eskola eta Oñatiko

Gaztelekua

Saridunak:

LH sailean:

1. Izeia Ibabe eta Claudia Vazquez bikotea.
2. Jokin Zubillaga Ugarte.
3. Maider Molinero.
4. Markel Barrena.
5. Ane Murguzur Arregi.

DBH-Batxilego sailean:

1. Urko Arregi Markuleta.
2. Aitor Tatiegi.
3. Malen Osa.

Getariako Literatur Lehiaketa (15. 2016. Getaria)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2400-getariako-literatur-lehiaketa-15.-2016.-getaria>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Getaria

Antolatzailea: Getariako Udala

Saridunak:

LH5

Ioritz Olaskoaga Lertxundi, “Badoa denbora”

12-14 urte

Aingerua Aizpurua Mancisidor, “Getariako txakolinak”

14-16 urte

Onditz Goikoetxea Uzin, “Pentsamenduen magalean”

Helduak

Saioa Martinez de Lahidalga Azkue, “Bizi(tza)”

Ibon Zabala Saria (18. 2016. Erretereria)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2364-ibon-zabala-saria-18.-2016.-erretereria>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Erretereriako Bertso-Eskola (Xenpelar), Lau Haizetara Elkartea

Saridunak:

1. saria: “Irri baten norantzan”. Egilea: Julene Iturbe Epelde (Azkoitia)
2. saria: Desert

“Joxean Ormazabal” ipuin, bertso eta marrazki lehiaketa (13. 2016. Segura)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2367-joxean-ormazabal-ipuin-bertso-eta-marrazki-lehiaketa-13.-2016.-segura>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Segura

Hedadura: Segura

Antolatzailea: Elorri Kultur Elkartea

Saridunak:

- Irular Eskisabel
Onintza Sukia

Julene Azpeitia Ipuin eta Bertso Lehiaketa (18. 2016. Durango)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2336-julene-azpeitia-ipuin-eta-bertso-lehiaketa-18.-2016.-durango>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Durango

Hedadura: Durango

Antolatzailea: Durangoko Udala. Euskara

Saridunak:

LHko 5. eta 6. maila

Manex Roman Munitxa, “ALFERRAREN
BERTSOAK”

DBHko 1. eta 2. maila

Ander Sarriugarte Garcia, “LANBIDEAK”

DBHko 3. eta 4. maila

Hutsik

17-18 urte bitartekoak

Txaber Altube Sarriionandia, “EDURNE ZURIRENAK”

18 urtetik gora

Iñigo Legorburu Arregi, “JAIOTZERAKO, HELDU”

Koldo Eleizalde Literatura Lehiaketa (31. 2016. Bergara)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2343-koldo-eleizalde-literatura-lehiaketa-31.-2016.-bergara>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Bergara

Hedadura: Bergara

Antolatzailea: Bergarako Udala. Euskara

Saridunak:

1. taldea: Lorea Arenaza, Maitane Gomez eta Eider
Elortza : “Koldo Eleizalde lehiaketa”

Koldo Mitxelena Literatur Saria (27. 2016. Donostia)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2290-koldo->

[mitxelena-literatur-saria-27.-2016.-donostia](#)

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Donostia

Antolatzailea: Donostiako Euskararen Udal Patronatua

Saridunak:

SARIAK:

Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte):

-Jon Ander Sanchez Sertutxa, “Animaliak”

Batxilergoa eta Lanbide-Heziketa (16-18 urte):

-Asier Ibarguren Amondarain, “Zoritzarrak”

AIPAMENAK:

Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte):

-June Garaialde Oñederra, “Danborrada”

-Beñat Lopez Marin, “Dirua=Krisia”

-Paula Sanz Vicente, “Nire amona hau da”

Batxilergoa eta Lanbide-Heziketa (16-18 urte):

-Jagoba Erdozia Caballero, “2015 urtea”



Udalekuak

Zuhatza, 2016-08-25

Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

Lasarte-Oriako Bertso-Paper Lehiaketa (23. 2016. Lasarte-Oria)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2339-lasarte-oriako-bertso-paper-lehiaketa-23.-2016.-lasarte-oria>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Ttakun Kultur Elkarte

Saridunak:

DBH 4. maila:

1. Maialen Aristegi

LH 5. maila:

1. Haritza Diaz de Guereñu

Aipamen bereziak:

DBH1 mailako Olatz Castro, Nahia Calle eta Haizea
Arbizu

LH5 mailako Katixa Izaga

Lazkao-Txiki Bertsopaper Lehiaketa (25. 2016. Ordizia)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2325-lazkao-txiki-bertso-paper-lehiaketa-25.-2016.-ordizia>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Argi Berri Elkarte

Saridunak:

Gazteak: Aner Peritz, “Bizi banaiz ez da hilko”.

Helduak: Karmele Mitxelena, “Bigarren eskuko bihotzak”.

Loramendi Literatura Lehiaketa (27. 2016. Aretxabaleta)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkako/view/2331-loramendi-literatura-lehiaketa-27.-2016.-aretxabaleta>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Aretxabaleta

Hedadura: Aretxabaleta

Antolatzailea: Loramendi euskara elkarte

Saridunak:

Ez da saririk banatu bertsoen atalean, maila guztiak hutsik gelditu dira.

Malerrekako Leihotik Begira. Literatur, komiki eta bertso paper lehiaketa (3. 2016. Malerreka)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkako/view/2344-malerrekako-leihotik-begira.-literatur-komiki-eta-bertso-paper-lehiaketa-3.-2016.-malerreka>

Kokapena: Malerreka

Hedadura: Malerreka

Antolatzailea: Malerrekako Mankomunitatea. Euskara Zerbitzua

Saridunak:

LHko 5. Eta 6. mailan:

1. Egoitz Bueno, “Aingeru itturri”
2. Xabier Mariezkurrena

DBHko 1. eta 2. mailan:

1. Goretti Lana
2. Oihan Martinez

DBHko 3. eta 4. mailan:

1. Zaira Gaztelumendi, “Sunbillako hizkuntzak”
2. Gaizka Agirre

Merkataritza euskararekin Bertso Paper Lehiaketa (2016. Markina-Xemein)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkako/view/2371-merkataritza-euskararekin-bertso-paper-lehiaketa-2016.-markina-xemein>

Kokapena: Markina-Xemein

Hedadura: Markina-Xemein

Antolatzailea: Hemen be bai. Markina-Xemeingo Merkatarik Elkartea

Sariduna: Amaia Ezenarro

Pello Mari Otaño Bertso Paper Lehiaketa (3. 2016. Zizurkil)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkako/view/2366-pello-mari-otao-bertsopaper-lehiaketa-3.-2016.-zizurkil>

Kokapena: Zizurkil

Hedadura:

Antolatzailea: Harituz Bertsozale Elkartea eta Teodoro Hernandorena Kultur Elkartea

Saridunak:

Helduen maila:

1. Amaia Agirre, “Beti geratuko zaigu Paris”
2. Asier Azpiroz, “Enkarguz”

Gazteen maila:

1. Julene Iturbe, “Itzalpean”
2. Ane Beloki, “Gazte garaiei begira”

Gaztetxoan maila:

1. Alex Agirre, “Lehenengo aldiz konfesatzera noa”
2. Oinatz Otegi, “Zer moduz Pello Errota?”

San Andres Bertsopaper Lehiaketa (22. 2016. Eibar)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2362-san-andres-bertso-paper-lehiaketa-22.-2016.-eibar>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Euskal Herria, Eibar

Antolatzailea: Eta Kitto! Euskara Elkarte

Saridunak:

16 urtetik gora:

1.go saria: Eli Pagola

2. saria: Julian Albistur

16 urtetik behera:

1.go saria: Peru Alberdi

2. saria: Eneko Osoro

San Antontxu Bertsopaper Lehiaketa (18. 2016. Mungia)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2248-san-antontxu-bertso-paper-lehiaketa-18.-2016.-mungia>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Bizkaia

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Mungiako Bertso-Eskola (Taket)

Saridunak:

Gazteak

1. “Siriako bide-ertzetik” (Abarka). Julene Iturbe
Epelde (Azkoitia)

2. “Dime Arratiko herri bat da”(Mandoia). Maddi
Zabalo Mateos (Zeberio)

3. “Ondoloein Anertxo” (Semea). Aner Peritz Manterola
(Zarautz)

Aipamena: “Bizitzan asko ikasten dugu” (Gatikarra).

Olaia Cancelo Mardaras (Gatika)

Helduak

1. “Taketa” (Taketzale 15). Juanjo Respaldiza (Orozko)
2. “Kanpinetik” (Izar herratu). Aitor Albiztur Pulido (Errenteria-Orereta)
3. “Atentatuen biharamuneko guda” (Hollande). Aitor Servier Etxexuri (Azkaine)

Aipamenak:

- Aitor Esteban Etxebarria (Urduliz)
- Beñat Barainka Enzunza (Arrieta)
- Erlantz Astorkiza Garcia (Mungia)
- Irati Enzunza Mallona (Mungia)
- Kattalin Arriola Uriarte (Fruiz)

San Telmo Literatur Saria (33. 2016. Zumaia)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2401-san-telmo-literatur-saria-33.-2016.-zumaia>

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Zumaia

Antolatzailea: Zumaiaiko Udala

Saridunak:

LH4: Andoni Sagarzazu, “Natura”

LH5: Maren Torre Iturain, “Liburuak”

LH6: Naia Cartier Lizarralde, “Lanbidea aukeratzen”

DBH1: Iñaki Ureta, “Familia”

DBH2: Nerea Tena Eizagirre, “Etixerako lanak”

DBH3: Erika Urain Cintero, “Bertsoak zertarako balio duen da gaurko galdera”

DBH4: Leire Azkoitia Mesonero, “Amarentzat”

BATX: Aritz Agirre Egaña, “Gero eta jende gehio”

Santixabel Bertsopaper Lehiaketa (40. 2016. Usurbil)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2324-santixabel-bertso-paper-lehiaketa-40.-2016.-usurbil>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Usurbil

Antolatzailea: Usurbilgo Bertso-Eskola (Bota Punttuba)

Saridunak:

1. Imanol Zarautz, “Makatzetik sagarrondora”
2. Jon Aizpurua, “Hiyab”
3. Iñaki Agirresarobe, “Amaren itzala”

Urretxu eta Zumarragako Eskolarteko Bertsopaper Lehiaketa (29. 2016. Urretxu-Zumarraga)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2302-urretxu-eta-zumarragako-eskolarteko-bertso-paper-lehiaketa-29.-2016.-urretxu-zumarraga>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Urretxu-Zumarraga

Antolatzailea: Zumarraga-Urretxuko Bertso-Eskola

Saridunak:

A maila:

1. Aintziñe Maroto Mendizabal
2. Mikel Aiaitui Madina
3. Maider Lara Uzkudun

Aipamenak: Aimar Lazaro del Hoyo, Manex Berasaluze
Badiola, Irene Perez Rodriguez, Malen Aseginolaza
Egiguren, Onintze Estonba Martin, Eider Lesaka
Txintxurreta, Markel Adanez Perez, Unai Urkiola
Garcia, Jokin Garitagoitia Granado, Aitor Formoso
Matias eta Ibai Badiola Intxausti

B maila:

1. Maren Etxeberria Altzelai
2. Izaro Lesaka Txintxurreta
3. Igone Aldama Urteaga

Aipamenak: Leire Gaztañaga Rodriguez, Jokin Idigoras
Ejea, Amaya Udabe Randriamampandry, Laura
Carrasco Lasa eta Maddi Mendia Ranilla

Uztapide Bertso-Paper Sariketa (2016. Zestoa)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2352-uztapide-bertso-paper-sariketa-2016.-zestoa>

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Urola Kosta

Antolatzailea: Zestoako Bertso-Eskola (Erralla)

Saridunak: Peru Llanos, “Hau ez da berria”

Xabier Munibe Bertsopaper Lehiaketa (25. 2016. Azkoitia)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2316-xabier-munibe-bertso-paper-lehiaketa-25.-2016.-azkoitia>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Urola Kosta

Antolatzailea: Indarlan Guraso Elkartea (Xabier Munibe Ikastola) ; Udaberri Guraso Elkartea (Xabier Munibe Ikastola)

Saridunak:

DBH 1. eta 2. mailan:

1. Aner Euzkitze, “Azken aldiz bisitan”.
2. Jone Zuazolacigorraga eta Maren Barrero, “Lau urtaroz”.
3. Judith Arambarri eta Jone Arregui, “Gure zaletasunak”.

4. Ilargi Arandia eta Aitana Aramberri, “Udaleku bikainei”.

DBH 3. eta 4. mailan:

1. Oihana Arana, “Leihoa”.
2. Haizea Arana, “Olentzero maitea”.
3. Garazi Legarda-Ereño eta Amaia Matxinea, “Munduko txoko ezberdinetako festak”.
4. Idoia Larrañaga eta Ihintza Arakistain, “Abortuaz”.

Sari berezia (herriko onenaren saia):
Julene Iturbe, “Itsua”.

Zapirain Anaiak Bertsopaper Lehiaketa (28. 2016. Erretereria)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2363-zapirain-anaiak-bertso-paper-lehiaketa-28.-2016.-erretereria>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Erretereriako Bertso-Eskola (Xenpelar), Lau Haizetara Elkarte

Saridunak:

1. saria: “Haurrik izan ezin duen bikotea”. Jon Martin Etxebeste (Oiartzun)
2. saria: “Winston”. Aitor Albistur Pulido (Erretereria)

Zubeltzu Bertsopaper Lehiaketa (7. 2016. Deba-Itziar)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2293-zubeltzu-bertso-paper-lehiaketa-7.-2016.-deba-itziar>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Deba - Itziar

Antolatzailea: Debako Udala. Euskara ; Zuhatza Kultur Elkartea

Saridunak:

1. LEHEN HEZKUNTZA:

1. saria: June Sudupe, 'Klima Aldaketa'
2. saria: Amaïur Ponce, 'Familia'
3. saria: Danel Aranberri, 'Txupinazoagatik lo hartu ezinik'

2. DBH:

1. saria: Aloña Salegi
2. saria: Irati Aznal, 'Nire talentua'
3. saria: Julia Ron

3. NAGUSIAK:

1. saria: (Hutsik)
2. saria: Josune Arakistain, 'Orratzak'
3. saria: Karlos Larrañaga, 'Hauxe da hauxe mundu petrala'



Euskal Herriko Eskolartekoa

Ereñotzu, 2016-06-04

Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

BAT-BATEKO BERTSO HAUTATUAK

HERNANI (2016-01-02)

*Bertsolariak: A. Egaña, A. Laburu, B. Gaztelumendi,
M. Lujanbio, E. Pagola eta O. Iurramendi.*

Gai emailea: Aritz Zerain.

“Iraulio Panttalone” Hernaniko Bertso Eskolak antolatu zuen jaialdia, Biteri Kultur Etxean. Sarrerak agortu egin ziren, eta saio txukuna atera zen.

A. Laburu – B. Gaztelumendi

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/145lg8>

Gaia: Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa bukatu berria da eta zuentzat aho zapore onarekin. Elkarriketa asko entzun dizkizuegu, prestaketaz, helburuez...

Baina, jakin nahi genuke bertsolari bati zer erresaka uzten dion horrelako final batek fisikoki eta emozionaliki.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Manuel Narruk atzo esan dit C*

B. Gaztelumendi

Nik hiru kilo galdu nituen
ia ez daukat giharrik
eta gauetan loa eduki
degu ahaztu samarrik.
Txapelketa hau polita izan da
ez dago esan beharrik
baino eskerrak jokatzen degun
lau urtean behin bakarrik.

A. Laburu

Beñat, Aginek eduki arren
betiko adixkidia
gogorra ez da beti egiten
borroka baten idia
baino oholtza ta oholtza artekua
kasu askotan bi dia
hiri gehiago ez al zaik gustatzen
batera indako bidia?

B. Gaztelumendi

Iraila aldean abitu ginen
nahiko modu xuabea
eta aste ta hilabeteak
igaro ustekabea
erratz mutur bat hartzen gendun ta
biok elkarren parean
zenbat bertso txar bota ditugun
Ipintzako sukaldean!

A. Laburu

Han egindako intento hura
ez dago alperrik utzia
errimek eta ideiek brillo
atera nahiz igurtzia.
Gure barruan geldituko da
hobetutako gutxia
pena bakarra daukat Beñati
gehiagi erakutsia.

B. Gaztelumendi

Zuk badakizu izan zerala
neretzat kide itzela
kantuan aina ikasi nuen
entzuten ari nintzela.
Nahiz ta Ilunben buru gainean
jarri zidaten txapela
zuk badakizu horren parte bat
zurea ere badela.

A. Laburu

Etzan falta ez agur horretan
bertso eskolaren izenik
ez zan falta ez lagun flako ta
bertso adiskide gizenik.
Txapelan parte bat guria da
hala esan dek zuzen hik
baino ez dek ba usteko horrekin
konformatuko naizenik.

B. Gaztelumendi

Aldamenetik ni harrituta
begira jarri natzaizu
biok parean aritu gera
erdi ikasle, erdi maisu.
Hurrengorako ondo dakizu
gehiago saiatu aizu!
Neri tokatu zaidan bezela
zuri tokatuko zaizu.

A. Laburu

Ez dizkit maitte nik metafora
ta zenbait lore hortera
onartu arren ez nintzala ni
sartu lehenengo kortera
baino halare gerran aizkora
sartu dezagun lurpera
bide berbera egin dezagun
hemendikan lau urtera.

M. Lujanbio – B. Gaztelumendi
<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/145mik>

Gaia: Atzo sartu ginen 2016an, eta ofizialki Donostia da Europako Kultur Hiriburua. Zuek ondo ezagutzen duzue Donostia eta kultur mundua. Zuek zer espektatiba dituzue? Edo zer espero, zer nahi?

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Espainian behera*

M. Lujanbio

Ez dizkigu gehiegi
 berotu bihotzak
 belarriak bete bai
 horren harrabotsak
 entzungo ote ditu
 bertako ahotsak?
 Edo jasoko ote
 ditu txalo hotzak?
 Adar hostotsuak ta
 sustraiak motz-motzak. (bis)

B. Gaztelumendi

Han ibiliko dira
 adar denak hegan
 ia sustrai gabeko
 zuhaitz baten eran
 ekitaldi erraldoiak
 elkarren ileran.
 Norbaiti galdetuko
 nioke aukeran
 guk egiten duguna
 kultura ote dan? (bis)

M. Lujanbio

Odon zegoenean
 dena zen eskasi
 Bildu sartu zenean
 amets bat zen kasi.
 Orain Goia dago ta
 hor gabiltz nahasi
 gure kriterioek
 pentsa zenbat sasi!
 Eman behar liguke
 nahiko zer ikasi. (bis)

B. Gaztelumendi

Bestela ere ikasten
 degu guk guztira.
 Bi mila ta hamaseian
 dena da dizdira.
 Antolatzen duena
 ederki ari da
 horren kosmopolita
 ta ireki tira!
 Europaz hitz egiten
 Madrila begira. (bis)

M. Lujanbio

Ta Madril gabe ere
nahikoa denbora
ekarri ote degu
kultura gogora?
Guretzat kultura da
behetik ta gora
herrian sustraitua
eta edonora
baina gaurko kultura
turismorako da. (bis)

B. Gaztelumendi

Pintxo batzuk Donostin
postalak dendetan
eta turistak gure
bazter guztietan.
Alde latza izango
genuke benetan
inbertituko dena
su artifizialetan
inbertituko balitz
bertso eskoletan! (bis)

M. Lujanbio

Hala diseinatu da
hala heldu zaigu
planteamentu hori
horrekin darraigu.
Azalean gastatu
dute nahiko diru
proiektu haundi nahiak
arrisku hori du
gure alde jartzea
guri dagokigu. (bis)

B. Gaztelumendi

Guri dagokigula
seguru gaude gu
eta dagokiena
esango diegu.
Gu kantari gabiltza
uda eta negu
nahiz ez degun izan nahi
inoren eredu
guk gurea egiten
jarraituko degu. (bis)

OÑATI (2016-01-05)

*Bertsolariak: A. Egaña, B. Gaztelumendi, A. Martin,
A. Mendiluze, A.M. Peñagarikano eta A. Sarriegi.*

Gai emaila: Mirari Sagarzazu.

Urteroko zita Zubikoa pilotalekuan. Oñatiko Bertso Eskolaren eskutik, Errege bezperako saioa. Saio bizia eta umoretsua atera zen.

A. Egaña – A.M. Peñagarikano
<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/145nl0>

Gaia: Andoni, ehiztaria zara eta Peñagarikano txakurra ekartzeko egundoko dirutza pagatu duzu. Baina ikusten duzun moduan ez dago lanerako gertu.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Kantore berri xarmant batzuek*

A. Egaña

Ehiztaria naiz ta udazkenean
ehizean nabil *a tope!*

Txakurra ona behar nukeela
lagunek hala diote.

Nik behin ekarri ta Argi jarri
eta moldatzen zait torpe
akaso Tonto jarri banio
oraindikan lo legoke (bis)

A.M. Peñagarikano

Telebisioz ikusten ditut
nik puskak eta hezurak
lehenago ere badauzkat baina
jarri dizkizut muturrak.
Aspalditxoko esaera da:
ehiztari danak lapurrak
eta ehizean ez du egiten
jaten ez duen zakurrak. (bis)

A. Egaña

Nere hezurrei txakurrak nekez
kenduko die dizdira
okela ere benetan gutxi
ematen diot guztira
ta ideia bat edukia det
palomita batzuk tira!
Ze txakur degu egoten dana
telebistari begira? (bis)

A.M. Peñagarikano

Ondo badakit ehiztari batzuk
orain nola zabiltzaten
ta ehiztariak batzuk izenez
besteik ez dira izaten.
Telebistari begira hemen
zer ari zera esaten?
Esan nahi nuen zuk ni ehizera
ez nauzula eramaten. (bis)

A. Egaña

Zangotzaraino joaten gera
Zangotza dago aparte
Gipuzkoatik abiatuta
ze distantzi ta ze tarte!
Horko txabola ilun horretan
zure ur kazo eta kate.
Argi hor bertan geratuko da
ehizean ikasi arte. (bis)

A.M. Peñagarikano

Ez nau sekula eramaten da
hau egoera astuna!
Ehiztaria ere ba ote zera?
Ez zera behintzat txukuna!
Neri izena zuk Pintto jarri
hoi da egin behar dezuna
zakurra Pintto ta ehiztaria
ezer pintatzen ez duna. (bis)

A. Egaña

Gure Argi hau ehiz kontuetan
ez dabil batere bero
Pintto izena nahiko lukeela
kontatu dit honezkero.
Bi begi haundi zabaldu eta
ehizik ezin det espero.
Are gutxio botako nuke
begi bat itxi ezker. (bis)

A.M. Peñagarikano

Nagusiakin hasarre samar
ni hala nabil aspaldi
modernizatu egin behar da
nik esaten dizut garbi
orain *selfi* egin behar degu
ehiztaria eta Argi
eta jendeak hala esango du
“Hemen Argi ta Ilargi” (bis)

A. Egaña – A. Mendiluze

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/145onc>

Gaia: Aita-semeak zarete. Andoni, semea, gaur kabalgatan egon da, baina etxera moskeatuta etorri da, pentsatu baitu errege kabalgatan Aitorren antz handia duen norbait ikusi duela. Eta galderak egiten hasi da.

Neurria: Lauko txikia

Doinua: *Ikusi nuanean I*

A. Egaña

Aita esan zaidazu
zer da kabalgata?

A. Mendiluze

Hiru Errege Mago
bertan triki-traka.

A. Egaña

Ez, baina etxekoaren
tankera bazuen.

A. Mendiluze

Galdetu beharko zaio
ea ze izen duen.

A. Egaña

Ta triki-traka zer den
jakin nahi det orain.

A. Mendiluze

Hiru Errege Mago
hiru zaldiren gain.

A. Egaña

Kolore beltza baina
holako kopeta.

A. Mendiluze

Nik noiz eduki det ba
pinturaz beteta?

A. Egaña

Bueno zaldi, gamelu
dena izan leike.

A. Mendiluze

Aizu zoologiaz
nik ez dakit bate.

A. Egaña

Ez baina gaurko hontan
zen susmagarria.

A. Mendiluze

Ta zergatik zeunden zu
beldurrez jarria?

A. Egaña

Nik han ikusi det bat
zure antzekua.

A. Mendiluze

Bai, baina ziur al zaude
zela etxekua?

A. Egaña

Ni ez nengon beldurrez
baizik kurioso

A. Mendiluze

Ba curiosidadea
arriskutsua oso.

A. Egaña

Bihar goizerako det
nik halako grina.

A. Mendiluze

Opari bat aurkitu
nahi dezu jakina!

A. Egaña

“Erregea aita da”
zion behin hor batek

A. Mendiluze

eta nik hori nola
ukatu dezaket?

A. Egaña

Hori esan zuen harek
Felipe izena.

A. Mendiluze

Horrekin ezin leike
atera zuzena.

A. Egaña

Ta Felipen laguna
da beti Mafalda.

A. Mendiluze

Hori beste errege
klaseren bat al da?

A. Egaña

Nik hori ikusten dut
komiki batzutan.

A. Mendiluze

Edozer gauza dago
zure liburutan.

A. Egaña

Baina gaurko erregeak
zure antza zeukan

A. Mendiluze

Ni beti nago ordea
koroaren faltan.

A. Egaña

Ta noiz izango ote da
ama erregina?

A. Mendiluze

Hobe hari galdetzera
joango bagina.

A. Egaña

Ta zaldiak tankera
zeukan amonana.

A. Mendiluze

Bale, arrazoi dezu
badakizu dana.

A. Egaña

Amonan zaldiana
esan nahi nuen nik

A. Mendiluze

ez det esan besterik
esan didazunik.

A. Egaña

Bueno aitatzu beraz
errege zu zera

A. Mendiluze

Ba bai, tori oparia
ta goazen etxera.

AMURRIO (2016-01-10)

*Bertsolariak: M. Lujanbio, B. Gaztelumendi, A. Arzallus,
U. Iturriaga, A. Sarriegi, S. Colina, I. Elortza
eta A. Mendiluze.*

Gai emaila: Naroa Sasieta.

Beste urte batez, urtarreleko lehen egunetan Amurrio Antzokian jaialdia. Udaleko Kultur Batzordeak bultzatuta, berriro ere aretoa bete egin zen Txapelketa Nagusiko zortzi finalistak entzuteko.

U. Iturriaga - A. Sarriegi

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/145ppo>

Gaia: Aitorrek aspaldi hasi zuen harremana Unai mutiko txikiaren amarekin. Beti ongietorri bera egiten dio: aurpegi txarrik ez, baina irribarre txikienik ere ez.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Nere gogoa hegan dijoa*

A. Sarriegi

Zure ama lagun hartu nuela
urte batzuek igaro
eta sentitu nahi zintudan nik
gero eta gertuago
baino aurpegi zurbila beti
irriparreak akabo!
Aitorrentzako parre txiki bat
horren garesti al dago?

U. Iturriaga

Nik ondo dakit erabat tenka
daramadala azala
jakin badakit gure amaxok
estimatzen zaituala
baina ulertu ez maitatzea
nigandik dala normala.
Eta mesedez ez sartu etxean
Porrotx bazina bezala.

A. Sarriegi

Urte gehiegi pasatu ditut
harrera on baten eske
ia ez dakit nola jokatu
uler ezazu hainbeste.
Egia esan ez naiz pailazo
ez naiz Porrotx, ez naiz gazte
zure aita ezin naiz izan baina
lagunak izan gaitezke.

U. Iturriaga

Zuk zer nahi duzu nik ez sentitu
eta hala ere sinestu?
Nire aita ja nola ezin nauen
lehenago legez babestu
aita ez zara, laguna, bueno
hortan ere justu-justu
zu nire amaren laguna izan
ta bestea neure esku.

A. Sarriegi

Zure esku dago noski bestea
hori ulertzen det ongi
baina badaukat urte hauetaz
oroitzeko aina memori
ez dizut eman gerra askorik
sarri asko bai euro bi.
Ahalegintxo bat eskatzen dizut
horrenbeste al da hori?

U. Iturriaga

Nire klasean ere entzun dut
halako konturik usu
ez pentsa gero lehenengo arrotza
suertatu zarenik aizu!
Gaizki egindako bizar horrekin
eman nahi zenidan musu.
Kinder arrautza baten prezioan
erosi nahi ote nauzu?

A. Sarriegi

Ezen aurretik esango dizut
nik ez zaitut erosi nahi
bizarra ere moztu dezaket
banaiz horretarako gai.
Zure ondoan egon naiteke
nola astegun hala jai
hemendik urte batzuetara
damutuko zera Unai.

U. Iturriaga

Auskalo hemendik urteetara
ni nabilen ihesean
edo ordurako atsegin hartuz
igual zure babesean.
Su-etentxo bat sina dezagun
Aitor besterik ezean
CR-7n bota berriak
daude Corte Inglesean.

I. Elortza - S. Colina

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/145qs4>

Gaia: Munduan bada koadro aski ezaguna: Rafaelen bi aingerutxo pentsakor. Zuek zarete bi aingerutxoak. Etxe asko ezagutzen dituzue, baina horietako bat Artur Masena. Baduzue zer pentsatua eta zeresana.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Espanian behera*

I. Elortza

Gobernatzeko jaio
zen tipo bat bazen
bazeuzkana ikasketa
zein hizkuntz almazen
ta begiratu orain
norantza goazen
bide osoa daramat
hausnartzen, hausnartzen
ta hona helduko ginenik
ez nuen pentsatzen. (bis)

S. Colina

Arturrek egin zuen
hasi ta jarraitu
ta oraindik berea
ez, ezta amaitu
bere esker tratuan
baitira anaitu
Jainko bihurtu baietz
lehengo lider kaiku!
Aingeruok kuadrotik
bota behar gaitu. (bis)

I. Elortza

Ba orain bera dago
kuadrotik joatear
etapa latza eginda
mendateetan zehar
gorantz sufritu egin du
beherantz egin negar
pasa autobia zein
bide estu mehar
ta azken sprinean
reitratu behar. (bis)

S. Colina

Maiz begiratu diot
kuadrotik horrela
whiski bat edanean
sofan zegoela
liburu bat eskutan
ta manta epela.
Nahiz erretiratu den
gentleman bezela
apustu egingo nuke
bueltatuko dela. (bis)

I. Elortza

Askok hala diote
buelatuko omen
hamazortzi hilabete
pasatu ondoren
baina ez ote dago
inoizko ondoen?

Hor sofán ikusita
pentsatzen nengoen
agintzen den lekuan
ez ote dagoen. (bis)

S. Colina

Artur ohituta dago
ataka estutan
ez du astirik galduko
psikiatren kontsultan.
Nahiz CUPen ostikadak
jarri duen sutan
sofara itzuli ta
da etxeke sultan
dagoeneko hartu du
mandoa eskutan. (bis)

I. Elortza

Halaxe sortu baitzen
burges ta ilustre
CUPekoek guztiak
gaur ez baitituzte
gure Arturrek badu
malizi ta fuste
gu ere tapadera
bat gara nik uste
hemen pare bat deabru
beharko lituzke. (bis)

S. Colina

Zergatik egin duzu
deabruen galde?
Bakoitzak egin behar du
berearen alde
bi aingerutxo gara
kuadroan goi ta behe
ebali gaituztenak
tapaderan pare.
Rajoyren etxeakoak
okerrago daude!

TOLOSA (2016-01-23)

Bertsolariak: M. Lujanbio, B. Gaztelumendi, A. Egaña, U. Iturriaga, U. Mendizabal eta A. Mendiluze.

Gai emaila: Amaia Agirre.

Leidor antzokia erabat beteta beste urte batez, Tolosaldeko Ataria komunikazio taldeak antolatutako jaialdian. Giro beroa eta saio ederra.

B. Gaztelumendi

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/145rug>

Gaia: Pantailatik jartzen zaio gaia. Bertako bideoan Inaxi Etxabe bertsolaria ageri da, pasatu berri den Gipuzkoako finalean Beñati txapela jantzi ziona. Honela dio Inaxik:

Beñat, haxe duzu hiru bertso kantatzeko gaia. Zuk eskerrak eman zenizkien erratz batetik kantari jartzeagatik mutil lotsati hura. Nik ederki ulertu nizun. Nola uste duzu bizi nuela nik bertsolaritza? Argiago ikusteko, tori nire betaurrekoak.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Gure aurreko guraso zaharrak*

B. Gaztelumendi

Ume lotsati hura bertsoak
behin egin zuen askea.
Bertso eskolen helburu ez da
soilik kantuz ikastea
baina tokatu zitzaidan mutil
baten moduan haztea.
Nahiko bazenu zuk bizitua
neri esanaraztea
ez dakit aski ote den zure
betaurrekoak janzte.



Bertsoa Jazzaldian

Donostia, 2016-07-24

Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

Entzun izan det etxean jardun
izan zinela xuabe
lehenik besteen bertsoak botaz
gero zure hitzen jabe
baina oholtzan jardun al zinen
besteekin parez pare?
Ahalegintzen naiz ta ulertzea
zail egiten zait hala're
bertsoa nola bizi daitekeen
plazarik eduki gabe.

Mutilak eta neskak bereizten
guk umetatik dakigu
eta sistema horren barruan
aritu gera beti gu.
Azken finean bertsolaritzak
ere problema hori du:
nik botatako bertsoak ia
sarri iritsi zaizkigu
eta aukeran nahio nuke zuk
kontatuko bazenigu.

A. Mendiluze – U. Mendizabal

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/145t0s>

Gaia: Puntuak erantzuten jarriko zaituztet. Baina nik ez; Harituz bertsotaldekoek jarriko dizkizute. Etorri Mikel Artola, Oihana Iguaran, Haritz Mujika, Imanol Irazustabarrena eta Adur Gorostidi.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

M. Artola

Sansebastianetan
parranda earra

U. Mendizabal

tanborra juaz jardun
nintzan ttirri-ttarra
Parte Zahar aldian
bazegon indarra
Donostik oraindikan
du gure biharra.

I. Irazustabarrena

Ahotsa ekarri dezu
Otañon modura

U. Mendizabal

katarruakin nabil
zapia eskura.
Nahiz ta lehen patxarana
eduki gertura
zakar xamar dijua
gaurko abentura.

A. Gorostidi

Ahotsa sendatzen da
etxean egonda

U. Mendizabal

gure Adurrentzako
hori nunbait on da.
Zuk ere badaukazu
hortako denbora.
Zer moduz zu etxean?
Kontatu gerora.

H. Mujika

Zure neurrikua da
irakasle lana.

U. Mendizabal

Ostegunero daukat
umeekin plana
ondo pasatzen degu
dena ez da drama
ikasi nahi badezu
etorri nigana.

O. Iguaran

Goizeko hamarretan
jaikiz egunero

U. Mendizabal

fama ederra jarri
didazue gero!
Iratzargailuakin
hamaika endredo
beti hola nabilenik
ez zazu espero.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orain hasi bihagu*

M. Artola

Beñatek inbidirik
ematen al dizu?

A. Mendiluze

Ez didala ematen
ondotik abisu
berak bat jantzi zuen
nik bi ditut aizu!
Matematikak nola
atera zaizkizu?

A. Gorostidi

Ezaguna zara zu
sagardotegitan

A. Mendiluze

A bai? Ez nuen uste
hori al da egitan?
Ba juxtu joaten naiz ni
urtean behin, bitan.
Zu ez ote zaude ba
nire inbiditan?

I. Irazustabarrena

Daukazu irakasle
kabroiaren fama.

A. Mendiluze

Ikasle kabroi batek
erantsi didana
eskertzen ez duena
nik hari emana
maisu lana askotan
alperreko lana.

O. Iguaran

Zuen semeak badu
maisu bat bikaina.

A. Mendiluze

Baina ez zaitzala zu
itxurak engaina
Tolosara bidali
nuen alajaina!
Unaikin ikasteko
aitarekin aina.

H. Mujika

Ikasleek ilerik
hartzen al dizute?

A. Mendiluze

Inork egingo balu
eskertuko nuke
adarra jo bai sarri
baina horren truke
beti nere irriparra
jaso behar dute.



Bertsotruk

Leitza, 2016-12-23

Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

M. Lujanbio – U. Iturriaga

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/145u38>

Gaia: (*Taburete banatan barra ertzean eserita, edalontziak parean*).

Lehenengo maitasun historia edo lehenengo bikote harremana ez omen da inoiz ahazten. Zuek elkarren lehen maitale izan zineten. Geroztik elkarren berri beti izan duzue. Batek bikotea duela, besteak lan berria duela, herriz aldatu dela... Gaur kalean topo egin duzue eta trago bat hartzera joan zarete.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orioko balearena*

U. Iturriaga

Harreman hau beharko
genduna normala
hau da nire dardara
ta oilo azala!
Txupito hori ezin
probatu berehala
bestela esango dizut
maite zaitudala. (bis)

U. Iturriaga

Baina jakituriak
gaitu gu eskastu
hiru aldiz banandu
ta ez aberastu.
Arrastaka ibiltzeko
horrenbeste gastu!
Seguru naiz sekula
ez nauzula ahaztu. (bis)

M. Lujanbio

Biok ere halako
dardara duguna
guazen pausorik pauso
poliki laguna.
Nahiz lehenaldi hura
geratu urruna
hartuko nuke orduko
ezjakintasuna. (bis)

M. Lujanbio

Urteak pasa ditut
besteri begira
baina begi ertz baten
nik zure dizdira.
Lehen aldia onena
ez omen da tira!
Gero okerragoak
ere izan dira. (bis)

U. Iturriaga

Ai zenbat istorio
biltzen diren hemen
okerragorik izan
omen zendula lehen.
Lehenetik probatu
bazendu bederen
okerra izanda ere
badakizu zer den. (bis)

M. Lujanbio

Gu izan ginen lehen
sugarren testigu
pasioa geneukan
ez etxe ez diru.
Gaur senar makal bat det
ta umeak hiru
elkarrekin aspertzen
nahiko ondo dakigu. (bis)

U. Iturriaga

Senar bat ta hiru ume
izen ta abizen
gorrotoz ez du esan
baina esan du ozen
elkarrekin aspertzen
ikasi hain zuzen
ba gu gaur elkarrekin
mozkortu gaitezen. (bis)

M. Lujanbio

Mozkortzearen horrek
nau umiliatua
beste zeozer nuen
zugan bilatua
espero nuen gau bat
korapilatua
ia askatzen degun
gogo pilatua. (bis)

U. Iturriaga

Beraz zuk ez duzula
egin nahi gaur zurrut
kutrea iruditu
zaizun eskaintzan truk
ba ikasi behar duzu
pixka't nigandik zuk
gogoak despilatzen
ederki ikasi dut. (bis)

M. Lujanbio

Gogoa despillatzen
jardun zerala ta
orain gizon serio
barearen planta
etxea ta dirua
bestea ta bata...
Dena daukagu baino
nahi genduna falta. (bis)

ZEANURI (2016-01-24)

*Bertsolariak: A. Mendiluze, J. Maia, F. Paia,
A. Arzallus eta A. Estiballes.*

Gai emailea: Javi Olibares.

Dozenara iritsi dira, hamabigarren jaialdia zuten Zeanurin. Oraingoan Jabi Olivares gai-jartzen. Bertsolari bat gutxiagokin aritu behar izan zuen: Maialen Lujanbio gaixotu egin zen eta zuen joaterik izan.

A. Estiballes - A. Mendiluze

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/1462co>

Gaia: Arkaitzek hiru txahal loditu ditu aurten eta Aitor tratantea etorri zaio erosteko asmoz.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orain hasi bihagu*

A. Mendiluze

Atarira heldu naiz
“Kaixo” eta galde:
goazen zure kortara
gehio itxoin gabe
ustez zinena hiru
txahal ederren jabe
txakurrak bai hor daude
ta txahalak nun daude?

A. Estiballes

Pasatzen ari danaz
ni nabil larritzen
uda osoa pasa dot
nik fardoak biltzen
baba zabala ematen
hor nintzan aritzen
baina emanda ere
ez dira loditzen.

A. Mendiluze

Baba ematen jardun
al zera benetan?
Orduan txahal horiekin
zaude zu zorretan
Lehen entzuna nuen ta
frogatu da bertan:
bakarra loditzen da
holako etxeetan.

A. Estiballes

Zerbait banekiela ta
hau gauza ustela
jakin Olivaresi
erosik zirela.
Uste dut ein dostala
fraude bat itzela
txahalak erosi nahi ta
zekorrek direla.

A. Mendiluze

Beraz zalantzan zaude
ia hala ez den
pixkana ari zera
ganaduaz ikasten.
Txahalak eskatu eta
zekorrek erosten
ta zuk noiztik dakizu
bi horiek bereizten?

A. Estiballes

Zelan egingo deusut
gaurko hontan kasu
bi horrek bereizteko
nik zenbat arazu!
Baina bisita ondo
kobratzezu aizu!
Zeuk ondo badakizu
zeuk esan eiztazu.

A. Mendiluze

Irakasle lana ere
 egin behar al da ba?
 Barkatu baina ez nator
 hona horretara
 Kontseju bat ganadu
 haundi horiek laga
 hasi oilaskoekin
 errezagoa da.

A. Estiballes

Baina hori lehenago
 behar neban jakin
 ta txahalak ondo hazi
 igual alfalfakin.
 Gaur bila etorri zara
 kamioi haundiakin
 hurrengoan nahiko da
 furgonetarekin.

A. Mendiluze

Bai, baina intentzio
 haundia nekarren
 ta gero ze atari
 ze ikuilu barren!
 Hiru erdi gaixorik
 ta bat erdi herren
 zer ematen didazu
 eramatearren?

A. Estiballes

Holakorik ez jata
 pasa egundaino
 txahalak mehe-mehe dagoz
 trumoi eta laino.
 Hurrengoei dirua
 emongo'tset joño!
 Ta doazela eurak
 LolyLeireraino.

DONOSTIA (2016-01-30)

*Bertsolariak: M. Lujanbio, B. Gaztelumendi,
A. Labaka eta M. Amuriza.*

Gai emaila: Estitxu Eizagirre.

Testu literarioak: Idurre Eskisabel.

Kitarra: Eñaut Asurabarrena.

Bertso jarriak: Rosi Lazkano eta Nerea Elustondo.

2016ko Bertso Egunak aldaketak ekarri zituen, eta nagusienetakoa goizean egiten zen bertso saioa areto batera eramatea izan zen. Azken urteotan, ohitura zen goizeko bertso saioa Donostiako Parte Zaharrean zehar egitea, poteo moduan. Eta oraingoan Kursaal pareko Picachilla pubean egin zen. Giro berezia lortze aldera, ezohiko egitura izan zuen ekitaldiak. Idurre Eskisabel kazetari eta idazleak testu literarioak irakurtzen zituen Eñaut Asurabarrenak gitarraz lagunduta, eta horri bertsoaldiak, bat-batekoak zein jarriak, tartekatzen zizkioten. Guztia lotzeko, Estitxu Eizagirreren aurkezle eta gai-jartzaile lana izan zuten. Eta Bertso Eguna talde-lana ere izaten denez, hauek Arkaitz Goikoetxea eta Ainhoa Agirreazaldegiren laguntza izan zuten gidoia eta gaiak lantzeko.

Jendetza bildu zen bertan. Ostatuan ez zen jende gehiago kabitzen eta Bizkaitik iritsitako autobuskideek, esaterako, kanpotik entzun behar izan zuten saioa. Maila oso oneko saioa izan zen.

B. Gaztelumendi – A. Labaka – M. Amuriza

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/146080>

San Prudentzio jaietan, Traña-Matienako Errota Kultur Etxean antolatutako jaialdia.

Leku dotorea, oso ondo prestatua. Ia-ia bete egin zen, sarrera doan baina aurrez hartuta heldu ziren berrehun lagun inguru eta erraz sortu zen giro beroa aretoan.

M. Lujanbio – J. Uria

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/146q10>

Gaia: Hamabost urteko lagunak zarete. Zuen lagun guztiek emana omen dute lehen musua, baina zuek ez. Jonek elkarrekin probatzea proposatu dio Maialeni.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orioko balearena*

J. Uria

Lehenengo musuak
ze beldur ze izu!
Bizipen horrek badu
horrenbeste pisu.
Proposamena bota
dizut baina aizu!
Nola hasi behar den
zuk ba al dakizu? (bis)

M. Lujanbio

Zer egin behar degu
eseri ala etzan?
Bat erasora joan
bestea defentsan?
Jone ez nuke nahi zuk
gaizki har zenezan
beste espektatiba bat
nun egia esan. (bis)

J. Uria

Guk gure burueri
zenbat eragite!
Denak musuka daude
hainbeste ekite!
Zuretzat beraz ni naiz
itsusi ta sinple.
Bueno berdin da hartu
mentazko bi txikle. (bis)

M. Lujanbio

Egia esan finago
lehen esan nezakeen
ia ba has gaitezen
musu hori ematen
baina masail ertzean
edo aho baten?
Noiz hasten da musu bat
musua izaten? (bis)

J. Uria

Masail edota ezpain
bertatik bertara
ez dugu inoiz eman
ta nolako traba
Nik teoria baina
argi daukat hara:
musu bat ez da musu
mingainik ez bada. (bis)

M. Lujanbio

Beraz hurbildu gera
gu ezpainetara
eta bere mingaina
hor sartu dit jada.
Hau al zan hain gozoa?
A ze nazka hara!
Bare bat txupatzea
bezelakoa da.

J. Uria

Bare bat dagoena
epel ta ez bero
nik ere horrelakorik
ez nuen espero
baina hobetuko degu
saiatu ezkerro.
Entrenatu behar dugu
asteburuero.

M. Lujanbio

Ondo ematen degu
rubia ta morena
helduko degu gure
mailarik onena.
Baina ai ze kontu zen
gure lagunena?
Sobrebaloratua
dago musuena. (bis)

I. Elortza – A.M. Peñagarikano

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/146r3c>

Gaia: Baserri batean, Igor ardia belarra jaten bakarrik egoten zen lasai-lasai. Etxeko aurrea garbitzeko jarri zuten. Baina orain ardi berria ekarri dute, Peña, eta hau azkar- azkar belar guztia jaten hasi da.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Nere senarrarekin I*

I. Elortza

Urte bete osoan
nik debozinoak
ze gose ekarri dau
gaur demoniñoak!
Kontrolatu egixux
zure emozinoak
aste bat iraun behar
deusku razinoak. (bis)

A.M. Peñagarikano

Bai, baina ez dute beti
hainbeste irauten
ardi danak ez dira
berdinak izaten
askoz gehiago jan dut
egun bakar baten
garbi asko ikusten da
ez duzula jaten. (bis)

I. Elortza

Hemen enbido behar da
ta ez jo hordago
inteligentea naz
eta neurritz nago.
Begiratu belartza
ba horixe dago
autopista daukagu
ehun metro horrago (bis)

A.M. Peñagarikano

Hain zuzen hortarako
ni ekarri naute
ta zenbat jaten dedan
ikusi zazute:
nere atzean Maialen
hortxe daukazute
horren barea ere
jan egingo nuke. (bis)
(*)

I. Elortza

Barea be jango dau
hoixe entzun dot nik
hemen ez dogu euki
gaur arte halakorik.
Bedartza jango deusta
gaur oso-osorik
ta Bizkaia osoan
ez dago otsorik. (bis)

A.M. Peñagarikano

Ta orain otsoari
zertako egin hots?
Hemen gozatu ditut
nik makina bat hortz
ta zu nere ondoan
geratu zara motz
ni beti ardi zaharra
ta zu beti bildots. (bis)

I. Elortza

Bedarra jan eta jan
ez eizu jarraitu
nausia ezagutzen dut
ta zuk ondo aitu:
kortazesped moduan
erabiltzen gaitu
ta ez bazaitu behar
hil egingo zaitu. (bis)

A.M. Peñagarikano

Puska batean ez naiz
aizu aterako
belarra asko janda
gizenduta bapo
ni kontserbatuko nau
produkziorako
zu eramango zaitu
almonditatako. (bis)

I. Elortza

Hau Durangaldea da
ta zu zabiltz txarto
ja baserritarra be
kaletar dalako.
Erabiliko zaitu
jakixu zertako
pegatina moduan
furgonetarako. (bis)

A.M. Peñagarikano

Hemen bildu gera gu
holako bi ardi
honek dana zikina
ta nik dana garbi
ta zein hilko luketen
entzun zazu adi.
Hor dago pastorea
galdetu berari. (bis)

(*) Aurreko saioaren aipamena

BILBO (2016-05-07)

Bertsolariak: A. Egaña, B. Gaztelumendi, O. Iguaran eta N. Elustondo.

Gai emailea: Ibon Aristi.

Santutxuko Bertso Eskolak urtero antolatzen ditu “Udaberriko bertso saioak”, Bilboko Udaleko Kultura Sailaren laguntzarekin. Aurten XXXII. edizioa. Ohikoa den moduan, Karmelo plazan egin zen lehenengo saioa, larunbat eguerdian.

A. Egaña - N. Elustondo

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/146ouk>

Gaia: Azken hamarkada hauetan mugikorrak argazkigintza hankaz gora jarri du: kamera atzean zegoena kamera aurrean jarri du, *Selfia* asmatu da. Gazteei galdetuz gero egunean zenbat ateratzen dituzten, ez gara harritzen berrogeita hamar badira. Zuek zenbat *selfi* atera dituzue? Inoiz atera duzue *selfiren* bat?

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Zeru altuan zegoen Jaunak*

A. Egaña

Kamara baten objetiboak
nunbait emana du buelta
nunbait pertsona gaur egun dago
nartzisismoaz beteta.
Nik sekretu bat kontatuko det
ez det eukiko gordeta:
selfirik nola aterako det
mobilik ez daukat eta!

N. Elustondo

Mobilik gabe bizitze hutsa
gaur egun harrigarri da
baina hargatik nik Andoniri
ez diot nahi ezer tira.
Nere aldetik maiz ipini naiz
mobilai hola begira.
Baina ez dakit ze kristogatik
denak beltz irtetzen dira.

A. Egaña

Imajinatu itsas ertzean
 laranjazko arrastia
 Imajinatu haitzak, uhinak
 ta gordetzen eguzkia
 imajinatu zelai berde bat
 gau ihintzarekin bustia
 ta tonto horrek galduko dezu
 zu, zu, ta zu, ez bestia!

N. Elustondo

Edertasunak galtzen ditugu
 ta gabiltz erdi hilean.
 Nahiz eta eman gomina eta
 guztia nere ilean
 beti desastre ateratzen naiz
 urrunean zein hurbilean
 pentsa palmera bat ipini dut
 watsapeko profilean.

A. Egaña

Gure burua erakutsi nahi
 ta hor gabiltza guztiz ñaño
 “Ni han nengoen” “Ni hau nauzue”
 erakutsi beharra ño!
 Baina gizona sortu zenetik
 sortzetikan oraindaino
 ezkutatzeke gehiago dugu
 erakustekoa baino.

N. Elustondo

Hori dela eta ezin ba egin
 geronen demagogia
 gure itxurak baduelako
 berekin nahiko ajia.
 Hala're nola aukera askoko
 bide dan teknologia
 zatoz Andoni ata dezagun
 zure lehengo selfia.



Bertso Kuadrilla

Trebiñu, 2016-01-16

Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

ONDARROA (2016-05-13)

*Bertsolariak: M. Amuriza, M. Artetxe, I. Murua
eta B. Gaztelumendi.*

Gai emailea: Esti Alberdi.

Kofradia Barria izan zen presoen aldeko hirugarren bertso jaialdiaaren aterpe.

Arratsaldeko 8etan izan zen, sarrera bost euro. Bertaratu zirenek saio goxo eta oro har ederra entzun zuten. Bukaeran, puntutan eta agurretan, bi ondarrutar, Jose Mari Aranbarri “Botx” eta Jon Arrizabalaga “Harri”, aritu ziren bertsolariekin batera.

B. Gaztelumendi – I. Murua

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/146s5o>

Gaia: Iñaki, 25 urte egin dituzu kartzelan. Gaur, erraz ahaztuko ez duzun eguna iritsi da, bazatoz herrira. Irteteko ordua iritsi zaizu, eta hor duzu, Beñat azken urteetan alboan eduki duzun funtzionarioa. Elkarri begira zaudete.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

I. Murua

Preso egon naiz kartzela hontan
hogeita gehiago urte
hainbat gose eta egarri greban
hartua naukazu parte.
Orain banoa hor uzten zaitut
ez ganora, ez aldarte.
Eta zuk preso segiko dezu
jubilatzen zeran arte.

B. Gaztelumendi

Egoten nintzen zure ateko
zirrikitutik begira
nere atzetik joaten zinen
patioaren erdira.
Nik hemen segi behar dedala
hori egia da tira!
Hala're zure lagunak ere
nerekin geratzen dira.

I. Murua

Hor uzten ditut eta horrekin
bihotza daukat tristerik
zure menpean egon beharra
ia ez da sinisterik!

Baina zu zaude bakar-bakarrik
eta gorrotoz beterik
hemendik kanpo zure zai ez da
bakardadea besterik.

B. Gaztelumendi

Ja hogeita bost urte pasata
ta zuk hirurogeita bi
bakardadea biontzat dago
hori izan zazu argi.

Nun bizi ta nun lan egin behar
zertan nahi zenuke ari?
Zuk ez diozu errez utziko
kartzelan egoteari.

I. Murua

Zitalkeriaz altxatzen dezu
azken agurrez ahotsa
hori desio badidazu nei
eman behar lizuke lotsa
baina ez noa denbora galduz
banoa bihotz airosa
eta gozatzen hasi nahi nuke
nere lagun-minen poza.

B. Gaztelumendi

Zure lagunak ere zahartu
zaizkizu zure antzera
igarotako urteak ezin
dira itzuli atzera.

Zure minean gordeta joango
natzaizu zure etxera
gauero zure amesgaiztoen
ateak irekitzera.

I. Murua

Beti gorrotoz ta beti minez
zera gizon berezia
min emateko soldataduna
min emateko hezia.

Bizia ere badezu baina
ez da ez zuk merezia.
Bueno egia aitortzen badet
hau ere ez da bizia.

B. Gaztelumendi

Bizia ez da inoiz erreza
besterik ez zen faltako!
Hala're zure herriak ere
zenbat ate, zenbat gako.
Hona ekarri zintuen gudak
berean dirauelako
badaezpada zelda bat libre
utziko det zuretzako.

I. Murua

Ba segi zazu zeure amesgaizto
eta zure desgrazian
hona berriro ez naiz helduko
sekula bizi guzian.

Lehenago hemen gazte ta heldu
gehiago ere bazian
ia lehenbailehen uzten zaitugun
betiko langabezian.

B. Gaztelumendi

Ez nuen uste zu zintugunik
nerekin hain dohakabe
mende laurden bat igaro degu
gertu-gertu, parez pare.
Itzuli zaite behingoz etxera
askatasunaren jabe
zu're lanean ai zera baina
giltzak nere esku daude.



Bardoak

Lizarra, 2016-01-22

Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

ANTZUOLA (2016-05-20)

*Bertsolariak: M. Artola, U. Mendizabal, U. Agirre
eta A. Martin.*

Gai emaila: Iraia Gabilondo.

Sasibertsolarixak Bertso Eskolak antolatu zuen Sanisidrotako saioa.

Torresorro antzokian izan zen. Sarrera bost euro, eta 50 lagun inguru elkartu ziren.

Aipatua eta gero bertsotara ekarria izan zen egun horretan Diario Vasco egunkariak saioa iragartzeko erabili zuen titularra: “ Hiru bertsolari gaztek eta 40 urteko batek abestuko dute gaueko jaialdian”.

U. Agirre – A. Martin

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/146t84>

Gaia: Gurasoek ikasketak ordaindu eta lan on bat izateko bidali zuten Alaiia. Alaiak munduko lanpostu onenak probatu ostean, baserrira itzuli nahi du. Unai, aita, aurrez aurre dauka.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Haize hegoak hurbiltzen ditu*

U. Agirre

Ongi etorri lehendabiziko
ai alaba bihotzeko
txikitandian saiatu ginan
gure maila iyotzeko
geu estutu ta zeureztat jarri
karrera on bat lortzeko.
Mundua horren gaizki al dago
berriz bueltan etortzeko? (bis)

A. Martin

Behin ikasia nigan dakarkit
hau da betiko etekin.
Ezagutu dut Hong Kong ta Sidney
La Paz gero eta Pekin.
Mundua dago deseraikita
nahiz egon hainbat eraikin
eta geroa eraiki nahi dut
nire bi esku hauekin. (bis)

U. Agirre

Bergararaino iritsi naiz ni
zuri nola erakutsi?
Jaio ezkero baserri hontan
aritu naiz jo ta hautsi
eskuentzako lain badaukagu
eta erremintei eutsi.
Hemen badakizu zer daukagun
lan asko ta diru gutxi. (bis)

A. Martin

Ederki dakit aberasteko
aukerarik ez dudana
baina zu pixka't pozik zaude ta
irripartsu dago ama.
Ezagutu dut transgenikoa
kutsadura ta porlana
ta orain gehiago estimatzen dut
zuek egindako lana. (bis)

U. Agirre

Baina lehenbizi ondo pentsatu
lasai hartu zazu beta
gaur hamar urte joan zinenian
hau hemen zegoen eta.
Monotonia da lanbide hau
ertetzen dena kolpeka.
Sei hilabete pasatu arte
zuk ez desegin maleta. (bis)

A. Martin

Deskonfidantza pixka bat duzu
agian nire erruz ta
ez dakit ondo nola erein, jaso
kardoa edo masusta.
Nahiz konfiantza dena ez izan
eskeini zaidazu puska
ta zuk zerorrek neurtu zazu
zein den emandako uzta. (bis)

U. Agirre

Bixitarikan ez nun espero
ta sortu zaidan nahastea!
Baina pozten naiz behar bainuen
etxean odol gaztea.
Bi katiuska hemen dituzu
ta hobe dezu jaztea
ez dezu nahiko azpi garbitzen
bota hoiekin hastea! (bis)

A. Martin

Nire takoiien altura ere
omen duzu igerria
ni odol gaztez gazte nago ta
zuk ahul duzu gerria.
Kontsumo talde bat sor dezagun
publika dadin berria:
elkarren lagun izan leizkela
glamourra ta baserria. (bis)

U. Agirre

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/146uag>

Gaia: Orain dela 80 urte hil zen zure aitona. Gaur, Elgetako Intxortako frontea egon zen lekura zoazte familia osoa. Ustez zure aitona ehortzita dagoen fosa irekitzera doaz.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: Gure munduko bizimodua

U. Agirre

Amona joan zan ta amarekin
noa dana bizitzera.

Gure aittona kondenatua
besteen eskutik hiltzera!

Hainbeste urte pasa ditugu
askok hitzetik hitzera.

Kostata baina ausartu gera
hobi honetan biltzera
aspaldi gaixki itxi ziguten
zauria irekitzera.

Gerra gordinak sortu izan du
ez dakit zenbat endredo!

Ume garaia gogoratzen det
triste eta bero-bero

amonak negar egingo zuen
hamar mila aldiz edo

Franco joan arren hau segitzea
ez zuen asko espero.

Eta batzuek berdintsu daude
laurogei urte ta gero.

Ahal dala ozen esan behar det
mundu denak jakin dezan
bala galdu bat etorriko zen
noraezean ta presan
eta guretzat konponbiderik
ez zen ez hemen ta ez han.
Aranzaditik deitu ziguten
zuloa ikusi genezan
bera hil zutela banekin baino
agur ez genion esan.

ZALLA (2016-05-20)

*Bertsolariak: E. Lekue, A. Elortegi, B. Amezaga,
N. Cortada eta J. Soto.*

Gai emaila: Jon Martinez.

Bertako Udalak antzoki dotorean antolatutako jaialdia bertsotrama bihurtu zuten. Gai edo egoera batetik bestera pantailan argazkia aldatuz, banpiro eta zombien istorioa osatzen joan ziren gai jartzailea eta bertsolariak.

J. Soto

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/146vcs>

Gaia: Hemen irudikatu dugu apokalipsi bat. Baina egungo gizartea hain apokaliptikoa da?

Neurria: Hamaikakoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Arratsaldeon ta aupa zuek*

J. Soto

Debekuz bete dira kaleak
 ta debekuz elkarreak
 bortxatzailez eliza barruak
 pederastiaz parreak
 kaleak eskalez bete dira
 ta plastikoz uharteak
 zimur nere betarteak
 egia esan beldur pixka bat
 ematen dit gizarteak. (bis)

Bakoitzak bere ghettoa dauka
 bakoitzak bere tribua
 bakoitza bere zilborrarentzat
 Jauna eta gatibua.
 Zuk segi zazu belauniko ta
 nik jango dut bisigua
 ni bata ta zu hirua
 batzuk odola txupatzen dute
 eta besteek dirua. (bis)

Gure mundutzar hau ikusten dut
 zonbi batzuen kartzela
 baina uste dut hauek egunez
 ere ateratzen direla
 ez dut ezkututzen sarri izan
 ohi naiz ni ezkor itzela
 agian zuek bezela.
 Baina uste dut oraindik ere
 aldatu daitekeela. (bis)

ANOETA (2016-05-27)

*Bertsolariak: B. Gaztelumendi, A. Martin, U. Agirre,
A. Laburu, I. Apalategi eta O. Iguaran.*

Gai emaila: Amaia Agirre.

Urte luzeetan egin gabe egon ondoren, aurten bigarrenez egin zuten Anoetan festetako jaialdia. Laurehun bat lagun bildu ziren pilotalekuan.

B. Gaztelumendi - A. Martin - I. Apalategi - O. Iguaran
<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/1470f8>

Gaia: Hogeita bost eta hogeita hamabost urte bitartekoek ezaugarri batzuk omen dituzte: ezkonkideen edadeak omen dira, lehenengo zimurak ateratzen omen dira, alkoholari neurria hartzen ikasten omen da, maskota erosteko joera nabarmentzen da. Ohikoen diren joera horiek ba al dute islarik zuengan?

Neurria: Seiko txikia

Doinua: *Bertsuak jarri dizkat*

A. Martin

Zimur batzuk badauzkat
zabal ta neurgaitz
alkoholarekin ere
neurtzen hasi naiz.
Maskota ta senarra
berdinak dira maiz.(bis)

B. Gaztelumendi

Ni oraindik ez nago
ezkongai klasean
eta parrandan berriz
gabiltz desfasean
oraindik segitzen det
aurreko fasean.(bis)

I. Apalategi

Amaiak asmatu du
goitik behera zirt-zart
alkoholari neurria
nik hartu nion bart.
Likorean botilan
lagarto bat daukat.(bis)

O. Iguaran

Zer behar da botilan
musker bat sartzeko?
Nik hogeita bost dauzkat
garaiz da zahartzeko.
Badauzkat hamar urte
neurria hartzeko.(bis)

A. Martin

Hamar urte alperrik
zergatik igaro?
Guztia ez da tekila
eta ardo trago
nik ere neurtzen dut
lehen baino gehiago.(bis)

B. Gaztelumendi

Neurtzen hasi zerala
egin dizut kasu
Alaia aldatua
ez ote zera zu?
Maskoteri bezela
beiratzen didazu.(bis)

I. Apalategi

Horrela izango da
zure arabera
hartzen dizugulako
xelebre tankera
ez dezu maskotarik
maskota zu zera.(bis)

O. Iguaran

Eta senar kontuez
hobe da ez hitz ein
nik ere ezkontzea
pentsatu nuen behin
gutan bat ezkontzen da
ezetz asmatu zein! (bis)

A. Martin

Lan haundia ezin da
ondo aukeratu
ezkontzeko behar da
aurrez entrenatu
eta ni ezkontzen banaiz
ez naiz enteratu.(bis)

B. Gaztelumendi

Hemen laurotan norbait
doa ezkontzera
eta ni ez naizela
nabarmen hoixe da
niri arrairik ez zait
bizirik atera.(bis)

I. Apalategi

Nik uste nun nintzela
guztiz harrapagaitz
gaur jakin det nagola
oraindio garaiz.
Bi urte gehio dauzkat
ta zertan ari naiz?(bis)

O. Iguaran

Alaiak urrun ditu
nobian dizdirak
ezkontzetik urruti
bere jirabirak
soinekoan partez du
txakurtxo txuri bat.(bis)

A. Martin

Soka izena du ta
hark dauka arreta
oso okerra gendun
zure ikerketa
askoz gazteagoa
ematen dut eta.(bis)

B. Gaztelumendi

Espeziala degu
giza-aberea
Alaia horixe da
maskoten legea:
bera zurea edo
zu zera berea? (bis)

I. Apalategi

Hamen nahiko maskotak
danok dirudigu
gaur bete ezkeru lau
baldintzatik hiru
ximurak kolpez danoi
atera zaizkigu.(bis)

O. Iguaran

Ba bai zimurtuko degu
lauok nahiko larru
ezkontza ta maskota
dira bi amarru
kontatuko dizuet
hamar urte barru. (bis)

SORALUZE (2016-06-03)

*Bertsolariak: B. Gaztelumendi, J.Maia, A. Arzallus
eta O. Iguaran*

Gai emaila: Josu Goikoetxea.

Pil-pilean Elkartek Udalaren laguntzaz antolatutako jaialdia, elkartearen XX. urteurrena zela eta. Bertsoaldi batzuetan musikariaren laguntza izan zuten. Domentx Uzin aritu zen tuba zein gitarrarekin.

B. Gaztelumendi – J. Maia – A. Arzallus – O. Iguaran
<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/1471hk>

Gaia: Bost urte dira areto honetan bertso saiorik egiten ez dela. Publikoan bada orduz geroztik bertso saioaren batera joan ez den jendea. Bost urte hauetan plazan zer gertatu den kontatu behar diezue, beraz.

Neurria: Zortzikoa, handiaren moldekoa, 4 puntuz

Doinua: *Sorlekua utziz geroz*

A. Arzallus

Bost urteko aldaketan
inor ez baitago salbu
Euskal Herriak iparra
irabazi edo galdu
bertso bakoitzak bere eguna
nahi izaten du azaldu
baina oraindik bertso zaharrek
zentzurik ez dute galdu.

J. Maia

Plaza batzuk beti dira
diskurtoaren aldare
ta beste batzuk haundiak
zirkuitoaren zutabe.
Denetarikan ta denentzako
badaude baina hala're
bakar bat ere ez da azaldu
Plaentxikuaren pare.

B. Gaztelumendi

Hogeita hiru urte neuzkan
ni nintzen mutiko fina
Euskal Herrian pasa da
mila pena, mila grina
hauteskunde zein herri harresi
ta pentsatzen det jakina
gure herria aldatu dela
gu aldatu geran adina.

O. Iguaran

Herrian plazan bezela
bost urte dira igaro
ta neretzat aldaketa
haundi bat izan da klaro.
Nahiz ta orduan izango nitun
zuk baino urte gehiago
amen galdezka nenbilen ni`re
eta orain “hamen” nago.

A. Arzallus

Gerra zaharrak, gerra berri
aitortuz gero ondradu.
Mundua berotuko zen
zero koma hiru gradu
eta bertsoak hoi en guzien
errotan segi behar du
gerrak lekuz aldatzen dira ta
bertsoak hala dihardu.

J. Maia

Politikaren gurpilak
nora gaitun eramaten
herriko soziedadean
eman digutela jaten
ez dakizuen ezer ez degu
bertsolariok esaten
dakizutena esaten degu
baina beste modu baten.

B. Gaztelumendi

Garai haietan Irak zen
gerra gogor baten parte
urteak joan da gerra
oraindik ez da aparte
nahiz ta bost urte izan litekeen
kantatzeko aina tarte
berdina esaten segiko degu
entzuten diguten arte.

O. Iguaran

Segi gerrak eraikitzen
hitzak omen dun artean
akaso noizbait biziko
baikera hola pakean.
Aparkatu det behinola armak
egiten ziren partean
ta ondo gaude fabrika hoiek
hautsez dauden bitartean.

BILBO (2016-06-08)

Bertsolariak: U. Alberdi eta A. Egaña.

Gai emailea: Pedro Alberdi.

Laugarren urtera doa Uxue Alberdi eta Andoni Egaña bertsolariek, Pello Ramirez musikariak eta hainbat idazlek “Kafkaren aulkia” emankizuna martxan dutela.

Bertsoa eta literatura uztartzen dituzte bertan. Pello Ramirezen txeloaren eta akordeoiaren doinuen laguntzarekin, idazle batek proposatutako testuen gainean inprobisatzen dute bertsolariek. Bilbo Zaharra euskaltegiak antolatutako saioan, Pedro Alberdi, Bilbon bizi den idazle eibartarra, izan zuten gonbidatu.

U. Alberdi

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/1472k0>

Gaia: “Dezepzioa” hitza ez dator euskal hiztegietan. Zer da zuretzat dezepzioa?

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Ilun ikarak azken argia*

U. Alberdi

Bizitzan zehar tokatu ohi da
holako batzuk batzea
batzuek aurre iten diete
besteek eman atzea.
Langa oso goian jartzea da hori
goian jartzea *katxea*.
Dezepzioa da ilusioei
tamainarik ez hartzea.

Izaeraz naiz nahiko beroa
Haserrekoa, suharra
ta halakotan tokatu ohi da
batzuek jaso beharra
baina halere nei segituan
loratzen zait irriparra.
Dezepziotik gutxi izan dut
edo memoria txarra.

Nik ere gora begiratzen dut
ilusioen eskale
beti izan naiz lortu ezin den
altxor urrun horren zale
eta bizitzak esanagatik
batzutan alto ta bale
dezepzioak dituen horrek
amesten duen seinale.

BERGARA (2016-06-10)

*Bertsolariak: O. Bartra, M. Amuriza, O. Iguaran
eta On. Enbeita.*

Gai emaila: Amaia Agirre.

Musikariak: Beñat Antxutegi eta Eneko Sierra.

Ez da kasualitatea izeneko saio musikatua egin zuten,
Bergarako gaztetxean.

O. Bartra – On. Enbeita

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/1473mc>

Gaia: Gaztetxe hau garai batean kartzela izan zen. Michele Angiolillo kazetari eta anarkista italiarrak hemen eman zituen bere azken orduak eta iaz RIPEko gitarristak ere hemen aurkitu zuen heriotza. Zer pentsatua eman dizue.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Geldirik ezin naizela egon*

On. Enbeita

Arratsaldean sartu gara ta
lekua hartu hain errez
gero estutu historiari
leku egin dautsagunez.
Izenak izen hau kartzela zan
danak dira ziegak berez.
Hiltzeko ez da leku ederra
baina bizitzeko be ez.

O. Bartra

Kartzela lege ezagutua
dozuela bergararro
ta kartzela bat izateko be
tetricoa baderitzot
pentsau izanaz zer biziko eban
ziega bakotxean askok
hona sartuta imaginauta
hotzikara sentitu dot.

On. Enbeita

Lau horma estu, leiho txiki bat
ohe bat ta hiru prenda
bat, bi, hiru, lau... gelarik gela
anonimoen zerrenda.

Auzolanean koloreztatu
dozue hau benga, benga!
Baina arnasa hartu ahala
zeozer korapilatzen da.

O. Bartra

Inguruetan somatu dogu
makina bat iluntasun
imaginario pertsonalean
kartzela zelan daukazun
ta proiektua berritxuratuz
burua nora joatzun
beraz ederra da nola egin dan
espetxea askatasun.

On. Enbeita

Ortuari be bota deutsogu
iluntzean begirada
buruaz baietz eginda danok
buelbaka hona ta hara.
Zer pentsatua emoten daben
paradoja handi bat bada:
gu gure kabuz etorri gara
ta holantxik joango gara.

O. Bartra

Beraz kartzela irudikatu
hemen sartuz bapatean
baina jadanik proiektu ezberdin
ta askea izatean
gaur auskalo zer pasatuko dan
oholtzatik behera joatean
agian gaba pasauko dogu
horko ziegaren batean.

On. Enbeita

Badaukat gaba eder-ederra
izango dan esperantza
guztiak ezin dau hartu eta
heriotz txarraren antza.
Zer izango da hemen bertsoa?
Umore baltza ta txantxa.
Ze sinplea dan gerra zaharra
galdu gendunon bengantza.

O. Bartra

Beste zoezer komentau nahi dot
espetxeagaz batera:
polita izanda gaur ingurua
apaintzeko zuen era
baina gu ere gaur ekarrita
hain juxtu be espetxera
beheran ze serio zauzien danak
funtzionarioen antzera.

ANDOAIN (2016-06-24)

*Bertsolariak: A. Egaña, A. Laburu, M. Amuriza,
On. Enbeita, A. Mendiluze eta A. Agirre.*

Gai emaila: Ion Beloki.

San Juan egunez, urteroko saioa da Andoaingoa. Plazan egiten da, eta oraingoan eguraldi txarra zela eta entzuleak ere oholtzan sartu ziren, eta gertu-gertuko saioa atera zen. Zaparrada baretu zenean, entzule gehiago agertu ziren plazara. Guztira hirurehun lagun inguru.

A. Mendiluze

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/147400>

Gaia: Festak iritsi dira, baina dena ez da festa izaten. Gaueko martxa ezagutzen duzu, saioetatik bueltan askotan tokatu izan zaizu bakarrik itzultzea, zure buruari bueltaka. Semeak ere ari zaizkizu parrandako adinera hurbiltzen. Ze burutazio etortzen zaizkizu?

Neurria: Hamaseiko handia

Doinua: *Eguzkiak urtzen du han goian B*

A. Mendiluze

Festak iritsi zaizkigu eta
urteko egun onenak
gaztearentzat aldamenetik
ateratzeko ordenak.

Nahiz ta gaueko jolas guztiak
izan goizeko kondanak
aldez aurretik zein gutxi ajola
izaten dun ondorenak.

Baina gertuan ditudalako
eskeak eta baimenak
eta bi seme ohartzerako
haunditzen ari direnak
nola azaldu ezin direla
egin beti gogo denak?
Beste zer galdu ez duelako
burua galtzen duenak.

Ni saiatzen naiz aholkuekin
jazteko seme maitea
nahiz gustora jarriko nukeen
bere hankatik katea.

Baina normala hoi da kumea
noizbait kabitik joatea
eta normala festatarako
gogo latza eramatea
normala aita edukitzea
beti aholkuz betea
normala berak ez entzutea
nere kezkatik botea
eta normala etxeratzean
“Ze ordu da?” esatea.
Okertu eta ikastea da
behin gaztea izatea.

“Txukun ibili”, “Garaiz etorri”,
gure aitaren esana
etxetik irten orduko beti
lasai esaten zidana.
Haren atzean beti kezkatan
erreguka beti ama
irtenaldiak ia gogoan
dauzkat denak banan-bana
berdin da herria, berdin kuadrilla
berdin eguna ta plana
behin etxeratzen direnerako
dena baita iragana.
Beraz semeak nere aholku
bat ta bakarra darama:
“Egin bakarrik eginda gero
damutuko ez zerana”.

MUNGIA (2016-06-29)

*Bertsolariak: A. Estiballes, A. Egaña. O. Iguaran
eta J. Larrinaga.*

Gai emailea: Bernardo Mandaluniz.

Mungiako Taket Bertso Eskolak Sanpedro jaietan antolatutako jaialdia. Andra Mari Estalpean, 13:15ean, laurehun lagun bildu ziren.

A. Estiballes

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/1475r4>

Gaia: Pako Etxeberría mediku forentsearen ikerketa batek frogatu du 4.000 tortura kasu baino gehiago egon direla Euskal Herrian.

Neurria: Hamabiko handia

Doinua: *Ez nau izutzen negu hurbilak III*

A. Estiballes

Tomas Linaza izena etortzen
zait burura parez pare
Mikel Zabalza Bidasoako
uretan itota bare
Unai Romano, bere aurpegia
mugitua alde aldez alde
zein Kepa Urrea, zerrenda hortan
dauden bi ondorio grabe:
gure herriaren memori hontan
izenak egon badaude
ta zenbat kasu egongo dira
izen ta abizen gabe?

Intxaurrondoko pasillo baten
lehen kolpeak ta barrura
elektrodoen antza ei daukan
bateri baten itxura
zazpi urtetan aldatu ez duten
bainera bateko ura
edo oihi bat damu zaitzana
etorri izanaz mundura
edo pomada soil bat ematen
ei dizun forentse hura.
Gauza guzti hoiek ta askoz gehiago
izan daiteke tortura.

Edozer gauza egin zitekeen
gerra baten izenean
eta ez ziren kasu aislatuak
baizik sistema barnean.
Forentse batek lau mila izen
bildu ditu azkenean
eta bidean darrai gehiago
irten leikezan planean.
Isildu barik jarrai dezagun
bide hortatik lanean
herri bat ezin baitogu sortu
isiltasunen gainean.

A. Estiballes – A. Arzallus

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/1476tg>

Gaia: Urteak joan eta urteak etorri, beti aurkezle bera Mungiako
saioan. Ez al zaudete aspertzen hasiak?

Neurria: Seiko txikia

Doinua: *Bertsuak jarri dizkat*

A. Estiballes

Saioa barriz ere
Amets ze motela!
Beti gai-jartzaile hau
ez al da itzela?
Txarrena gaiak ere
bardinak direla. (bis)

A. Arzallus

Nahiz Bernardok ez daukan
kopeta lizuna
Bernardo zer emango
dizut erantzuna
pentsatzen dudana edo
entzun nahi duzuna? (bis)

A. Estiballes

Gainera sartu nahian
 zebilen gurekin
 “Gazte zarete edo...”
 nahi baduzu jakin
 lehengo aldiz nator
 alkondararekin. (bis)

A. Arzallus

Eta hasi atzeko
 partea aztertzen
 bion janzkera hara
 joanez aletzen
 zu zahartzen zoaz eta
 Bernardo gaztetzen. (bis)

A. Estiballes

Zuk praka bakeroak
 bastante tipiko
 zapatila marroiak
 ja horrekin kitto!
 Zeu ere etorri zara
 nahikotxu klasiko. (bis)

A. Arzallus

Neri goitik begira
 galdezka “Zer moduz?”
 Arkaitz zu nahastu zara
 gaiez ta inguruz.
 Ez al da kantatu behar
 Bernardori buruz? (bis)

A. Estiballes

Lehen be emon deutsogu
 guk nahikoa lata
 poloan kaskezur bat
 hortxe deuko taka!
 Bernardo beti izan da
 apur bat pirata. (bis)

A. Arzallus

Ia hogeita hamar urte
 gai-jartzaile lanez
 Rajoiren antza pixka bat
 badauka aidanez:
 beti amaitzeaz ta
 inoiz amaitzen ez. (bis)

A. Estiballes

Ba nik ez dot ikusten
 Bernardo hain triste
 zahartzen ari naizela
 ez al dozue uste?
 Uste dot dabilela
 omenaldi eske. (bis)

A. Arzallus

Ai omenaldi eske!
 Galdera sakondu.
 Zerbait txukuna behar
 diogu atondu
 gure omenaldia
 beti izango du. (bis)

A. Estiballes

“Gure omenaldia
beti izango du”
jarraituko daudela
hil arte seguru
hiltzen danean hortxe
enterrauko dogu. (bis)

A. Arzallus

Utzi itzazu Arkaitz
zuk azken orenak
ongi biziko ziran
mungiar gehienak
Bernardon umorea
baleukate denak. (bis)



Bertso Eguna Kursaaalen

Donostia, 2016-01-30

Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

Argazkilaria: Alberto Elosegi

SOPELA (2016-07-02)

Bertsolariak: U. Agirre, I. Elortza, P. Loizaga eta J. Soto.

Gai emaila: Arrate Illaro.

ALBEk (Algortako Bertsolari Eskola) antolatutako bertso jaialdia. Larunbat eguerdian izan zen, Sopelako txosna-gunean.

J. Soto – U. Agirre

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/1477vs>

Gaia: Ibarrako eta Irungo eraso sexisten ondoren, ekimen berriak jarri dituzte martxan. *Whatsapp* taldeak sortu dituzte neskek, ez daitezen etxera bakarrik joan. Parrandan norbaitek etxera joan behar badu, *Whatsapp* taldean idazten du eta beste norbaitek joan nahi duen eta horrela elkarrekin joaten dira. Zuek herri berekoak zarete, baina ez duzue elkar ezagutzen. Parranda ostean *Whatsappean* idatzi eta elkarrekin joateko geratu zarete.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Lagundurikan danoi II*

J. Soto

Gaua gozatu baitut
tragoaz tragoaz
eta dantza pixka bat
egin dut zangoaz
baina etxea itzultzeko
halako gogoaz
elkar topatu dugu
Whatsappen bandoaz.
Nola duzu izena
eta nora zoaz?

U. Agirre

Erantzungo dizkizut
danak berehala
Whatsappetik gu biok
elkartuta hala
pentsatu inkomodo
sentitzen naizala
hau ez genduke behar
behar degun bezala.
Elkar ezagutzeko
balio dezala.

J. Soto

Hemen hasten da beraz
gure pelikula.
Nik Ane dut izena
jakin dezazula.
Ettxera itzultzean
bakarti, ahula
sentitu izan al duzu
sekula, sekula
atzetikan itzal bat
dijoakizula?

U. Agirre

Orain zuri ez dizut
gezurrik botako:
kale honetan bada
majina bat kako
beldurrak nago eta
gezurtau zertako?
Sentitu izan ditut bai
hemengo eta horko
bestela ez zenuen
Whatsapp jasoko.

J. Soto

Teknologiak ongi
erabil daitezke
gu ere *Whatsapp* bidez
lasaitasun eske
bidean hemen goaz
urduri ta triste
nahiz elkarren ondoan
babesteko beste
metro erdi gehiago
hurbil al zintezke?

U. Agirre

Hori izango bada
zure zoriona
lasai elkartuko da
aparte dagona.
Ustekabean biok
bildu gara hona
eta nahiz joan gintezkeen
karizi ta broma
bildurrak bizi gera
ta hori ez da ona.

J. Soto

Ekarriko ahal ditu
honek egun batzuk
non lasaitasun gehio
izango dugun guk!
Hauxe da nere etxea
logela hortxe dut
nahiz babes gabe nagon
babestu nahi zaitut
nahi baduzu zurera
lagunduko dizut.

U. Agirre

Ezetzikan ez diot
esaten inori
horrek nere kiko du
mila kategori.
Jarraitu nahi badezu
jarrai zazu ongi
baina zer ari geran
ez esan inori
arazo batentzako
partxe bat da hori.

GETXO (2016-07-06)

*Bertsolariak: F. Paia, A. Martin, J. Uria, A. Egaña,
I. Elortza eta J. Soto.*

Gai emaila: Miren Loizaga.

Algortako Biotz Alai plaza da urteroko Bertso Jaialdi Mundialaren kokagune.

Urtero gai baten bueltan izaten da saioa, eta ukitu esperimental handia du ekitaldiak. 2016koak odola izan zuen ardatz. Eta beste behin udako saiorik jendetsuenetakoa bihurtu zen. Bederatzirehun lagun inguru bildu ziren.

*J. Soto - F. Paia - A. Martin - J. Uria - A. Egaña
I. Elortza*

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/147928>

Gaia: Gorritzen garenean odola masailetan pilatzen da. Baina gorritzeko arrazoi oso desberdinak daude. Zuk atzeko hauek azkeneko aldiz zergatik gorritu ziren kontatuko diguzu. Eta besteok erantzungo dute ala izan zen ala ez.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Eguna pasa nekean eta*

J. Soto

Joneri kolore gorritxo
bere bi masailatik
behin okindegira joan zenean
ta azalduko det zergatik:
“Por favor ponme dos barras de pan”
eskatu zion barratik
eta okinak erantzun zion
“Nik’e euskaraz badakit”. (bis)

J. Uria

Egia da bai okindegian
a ze nolako problemak!
Gorritu nintzen ze egin nituen
horren akats nabarmenak.
Noski erderaz egin nituen
nire eskaera denak
ze Gonzalez ta Rodriguez ziren
okinaren abizenak. (bis)

J. Soto

BECeko azken final ostean
garbi aitortzera goazen
monja bat enamoraturikan
hurbildu zitzaion zuzen
bera zela ta sotana uztea
ari omen zen pentsatzen
masail gorritu egin zen eta
korrika eskapatu zen. (bis)

I. Elortza

Bertso munduan gertatzen dira
pentsatu bakoak anitz
han jardun nintzen ni BEC kanpoan
monja harekin hitz eta hitz
ta egia da sotana horrek
gorritu ninduen hagitz
igual ez zitzaidan pasako
habitoa izan balitz. (bis)

J. Soto

Larunbat gauez eta neska baten
ingurura joan zen edo
galdetu zion “Nahi al zenuke
ni izatea torero?”
ta neskak baietz eta Frediri
bi masailak bero-bero
beti kalabazak jaso eta
nunbait ez zuen espero. (bis)

F. Paia

Masail gorritz beterik jaio zen
bai Paiatarron etxea
Osasunaren kolorea da
ta barkatu omentzea.
Arrazoi duzu Julio laguna
da gizakion trantzea
pasatu al zaigun gauza txarrena
da ametsak betetzea. (bis)

J. Soto

Alaia izotzezko andra da
Polo Nortea bezela
 beti bere tokian, beti hotz
 nunbait bihotza du gela.
 Behin ikusi dut nik gorrituta
 nola argazkian horrela
 inauteritan eta uste dut
 Heidiz mozorrotu zela. (bis)

A. Martin

Baina ez zen lotsa ziur nengoen
 hori zen koloretea
 bihotza nahi dut gela, txanpua
 ta denetik izatea.
 Ni txuria nahiz, txuri-txuria
 txuria reflektantea
 ta gorritzeko aski izaten dut
 hondartzara behin joatea. (bis)

J. Soto

Andoniri ja bere txoriak
 ez dio egiten pio
 baina lehengoan altxa zitzaion
 pastilla zela medio
 ta masailgorritu ein zen bera
 urduri eta serio
 aspaldi zen ez zula ikusten
 ta lotsa ematen dio. (bis)

A. Egaña

Juliok den-dena egia esan du
 ia ez daukat hitzikan
 pastilla hartu ta efektoak
 utzi ninduen pozikan:
 goitikan behera begiratuta
 metro erdia kasikan
 gorritasuna ez nuen lotsa
 emozioa baizikan. (bis)

IRUÑEA (2016-07-12)

*Bertsolariak: A. Arzallus, A. Fuentes “Itturri”, E. Lazkoz
eta M. Lujanbio.*

Gai emailea: Alaitz Rekondo.

Nafarroako Bertsozale Elkartearen bultzadaz, hainbat antolatzailearekin elkarlanean (Ikastolen Elkartea, Iruñeko Udala, Herri sanferminak, La Unica peña...) zazpi bertso ekitaldi antolatu ziren Iruñeko Sanferminetan. Inoiz jaietan izandako eskaintzarik zabalena. Formatu eta saio mota desberdinetako aukera izan zuten. Musikatuak, haurrentzat emanaldiak, bertso-bermuta, balkoitik edo jaialdi arruntagoak. Eta lekuak ere anitzak: Takonera, Sanfrantzisko plaza, Baratzurienea, La Unica peña... Saio nagusiak Sarasate plazan izan ziren, astearteko hau bestek bestea.

E. Lazkoz – A. Fuentes “Itturri”

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/147a4k>

Gaia: Hor, gibelaldean “Carlos III. Etorbidea” dago. Haren bukaeran plaza bat. Aurten izena aldatu dioten arte “Rodeznoko kondea” izena zuena. Konde hau lurjabea, karlista eta politikari frankista bat zen eta haren omenez zuen izena plazak. Eta haren ondoan “Eroritakoen monumentua”. Aurten aldatu zaio izena, orain “Askatasunaren plaza” da.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Goizian goizik jeiki ninduzun I*

E. Lazkoz

Iruñean daude hamaika ikur
gure iragan beltzeko
erabaki bat hartu zuten behin
“Conde Rodezno” jartzeko.
Gaur askatasun plaza deitzen da
ta nahiz den pozik jartzeko
oraindik txoko gehiago daude
Iruñean askatzeko.

Itturri

“Conde Rodezno”, askatasunan
plaza bihurtu da jada
hori lortuta ezin da hasi
euforia ta algara.
Txoko dexente aldatzeko ta
hori guretzako traba.
Falta zazikigu aldatzen baina
nunbaitetik hasi behar da.

E. Lazkoz

Hortan arrazoi duzu ta ez da
horren txarra hasiera
eta gainera Pamplona pasa
da Iruñea izatera.
Nahiz ta gu oso adi gabiltzan
izen hoién arabera
toki izenak ez du egiten
herri baten izaera.

Itturri

Baina aldatu ta batzuk hartu
zuten haundia pakea
“Conde Rodezno” aldatze hori
ez da inontzat kaltea.
Hori aldatu ta aldatu da
erakin horren partea
horren irudi ingurun dagon
haur txikintzako parkea.

E. Lazkoz

Zertan ukatu ni aldaketa
horrek oso pozik nauka
baina azaldu behar dizut nik
parean daukagun mauka:
ikusi hemen zenbat jende den
orain txalo, orain aupa!
Honek izenak baino askoz`e
garrantzi gehiago dauka.

Itturri

Aldaketa bat iritsia da
beraz Iruñea aldera
adibide bat zuk aipatua
hemen dugun plaza bera
baina eustea komeni zaigu
egin dezagun aurrera
aldaketari eutsi behar zaio
hemendik hiru urtera.

DONOSTIA (2016-07-24)

*Bertsolariak: M. Amuriza, A. Egaña, B. Gaztelumendi
eta J. Maia.*

Gai emailea: Unai Elizasu.

51. Heineken Jazzaldiaren egitarauan, Bertso Jazza berreskuratu zuten. Aurreko urteetan egin izan zuten musikari eta bertsolarien arteko ekimen hau, baina utzita zuten dagoeneko. Beste doinu batzuekin eta hauek entseatu ondoren, Victoria Eugenia 7antzokian egin zuten bat-bateko bertso saioa. Aritu ziren musikariak: Amañur Cajaraville, Julen Izarra, Bixente Martinez, Hasier Oleaga eta Xabier Zeberio.

J.Maia

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/147b70>

Gaia: Alabak galdetu dizu: “Aita, zergatik niretzat aitona eta amona dira eta zuretzako abuela eta abuelo?”

Neurria: Hamabikoa, ertainaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Azken tragotxo hori hartu*

Jon Maia

Ez da errexa azaltzea
galderaren ondorena
atzerantza begiratzea
izan liteke onena.
Haiek urruti bizi ziren
Hego lurretan barrena
abuela ta abuelo ziren
behin hartu zutenak trena
ondo diozu orain aitona
eta amona izena.
Aldaketa horretan dago
herri honen garapena. (bis)

Garrantzitsua da izana
baina baita ere izena
nik lehenago izkutatzen nuen
nere erdal abizena
hemengoak ez izateak
horrek sortzen zidan pena
konplejuekin bizi nintzen
baina aldatu zait sena
ta nik abuela esaten det
ta abuela bat ozena
lotsagabe esan nahi baitut
nintzena eta naizena. (bis)

Abuelak oroitarazten dit
familiarren kultura
beraien lurrik maiteena
izan zen Extremadura
eta zu ordea euskaldun
etorri zara mundura
beraiek egin zutelako
bidai luze-luze hura
zurea ta nerea berdin
jartzeko unea heldu da
ta kanta zaiozu euskaraz
orain dagoen zerura. (bis)

B. Gaztelumendi

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/147c9c>

Gaia: Goizeko laurak dira eta hondartzan zaude eserita. Gaua gogorra eta luzea izan da. Tabernako pertsianak ixten ikusi dituzu, lagunak aspaldi galdu ziren. Taxirik ere ez zegoen. Eta giltzak? Etxeko giltzak? Abiatu zara eta hondartzan jarri zara. Dena ilun, olatuen aparra bakarrik ikusten da.

Neurria: Hamaseiko handia

Doinua: *Haizea dator ifarraldetik*

B. Gaztelumendi

Igandea da ta barraz barra
poteatzen naiz aritu
ta larogeiko hamarkadako
kantuak ditut aditu.
Berrogeita bi urte dauzkat ja
poteadore aditu
maiz pentsatzen det “Ai oraindikan
hogeia bakarrik banitu!”.
Etxean daude lagunak baina
ni ez nintzen errenditu
lehenago jaia zena zergatik
bihurtuko da delitu?
Ta olatuak hara ta hona
ahul ditut nabaritu
nere bizitzan ere ez baitzen
aparra baino gelditu.

Lehendabiziko zerbeza zena
 bilakatu zen koktela
 mingain lodiko nere hizketa
 bilakatu zen totela.
 Beti izar bat izan nahi nuke
 ez gizon heldu, motela
 ta etxea da lo egiteko
 zapaltzen dedan hotela.
 Pentsatzen nuen beti gazte ta
 berde izango nintzela
 nabaritzen det hankak uretan
 desegiten doazela
 jende guztiak ahaztu duen
 Kontxa mortu hau bezela
 iruditzen zait neroni ere
 hondarrezkoa naizela.

Ta lo hartu det nere barruan
 dena zelako galerna
 ta ametsetan bisitatu det
 azkenaurreko taberna
 ta bapatean hor aritu det
 norbaiten ahots ozena
 mutiko bat da pala batekin
 jolasean ari zena
 ta eskuekin irudi batzuk
 egin ditugu aurrena
 baldearekin gaztelutxo bat
 osatu degu hurrena.
 “Aizu mutiko, gazteluz bete
 ezazu hondartza dena
 ta egizu bat mareak inoiz
 eramango ez duena”.

ELIZONDO (2016-07-25)

*Bertsolariak: A. Arzallus, O. Iguaran, J.M. Irazu
eta M. Lujanbio*

Gai emailea: Fernando Anbustegi.

Baztango Bertso Eskolak eta Festa Batzordeak antolaturiko saioa. Foruen plazan izan zen, jaieguna eguna zen astelehen arratsalde.

O. Iguaran – J.M. Irazu

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/147dbo>

Gaia: Gaur, herri kirol saioa zegoen eta ondoren bertso saioa. Zuek herri kirolzale eta bertsozale zarete, eta bietara abiatu aurretik, txosnetatik pasa zarete. Han, zuen harri durarako, apustuak daude. Bietarako.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Nere senarrarekin I*

O. Iguaran

Mila apustu klase
ezagutzen nitun
baino horrelakorik
ez ageri inun:
gu lauon zerrenda zan
idatzita txukun
duda apustu hori
zeinek epaitzen dun. (bis)

J.M. Irazu

Entzuleak behar du
orduan hitz egin
zeren gainerakoan
dena degu berdin.
Beste xelebre bat'e
bazegoen *en fin!*
Zion "Ametsek baietz
kuartelai pixa egin!". (bis)

O. Iguaran

Ta beste apustu bat
 ikusi det aizu
 bertsolariarentzat
 igual enbarazu.
 Halaxe agintzen zun
 ta Irazu jakizu:
 “Beatziko tzikian
 aiko da Irazu”. (bis)

O. Iguaran

Ba igual egingo det
 agindu bezala
 apustua irabazi
 ahal banu ojala!
 Ta “Irazu onena”
 jartzen du aibala!
 Baino iruditu zait
 zure letra dala. (bis)

J.M. Irazu

Apustua ote zan
 galanta mardula
 Irazu beatzikoan
 al dezu xuxurla?
 Ondoan bazuen bat
 eta ez zan ahula:
 “Bitartean Oihanak
 dantza egingo zula”. (bis)

Neurria: Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, 9 puntuz

Doinua: *Betroiarena A*

J.M. Irazu

Nere letra ote dan
a ze nahastea!
Oihana badaukazu
zuk kontrastea
txosnan dagoen hori
adieraztea
firma bat badarama
hitzekin jaztea.
Librea, askea
hoi nere ustea
hitzari eustea
ta garbi uztea
Irazuk kantatu du
oain zuk bestea. (bis)

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Aita San Migel Idurretakeo*

O. Iguaran

Egin dezuna ez nun espero
ta miresten det benetan
baino ni dantzan nola aritu
oholtza hontan orain bertan
doinu txukun bat hartu behar da
honelako ariketan
dantzan egingo dizut hurruna
baino bada doinu honetan.

GETXO (2016-07-30)

*Bertsolariak: S. Lizaso, A. Illaro, I. Zubeldia
eta A. Arzallus*

Gai emaila: Beñat Vidal.

Algortako Casino plazan eta San Inazio jaietan hirurehun lagun entzuten zirelarik, 13:30ean egin zuten jaialdia.

S. Lizaso - A. Illaro - I. Zubeldia – A. Arzallus
<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/147ee4>

Gaia: Udako saioak jai giroko saioak izaten dira, bereziak. Seguru nago gustagarriak direla gauza batzuentatik, baina izango dira gustatzen ez zaizkizuen gauzak.

Neurria. Zortziko handia

Doinua: *Haize hegoak hurbiltzen ditu*

S. Lizaso

Bertsolaria saio denetan
ahalegintzen da benetan
urtean zehar eta udaran
haseran buruhaustetan
ta sentimendu bikoitza ohi da
sarri herriko festetan:
osagarriak gera batzutan
betegarriak bestetan. (bis)

A. Illaro

Baina festetan gauza politak
izaten dira gehienak
nik estimatzen ditut aurrean
izaten ditugun denak
baina badira pertsona batzuk
nire ustetan onenak
kriston ajea izanda ere
huts egiten ez dutenak. (bis)

I. Zubeldia

Etiket irten goizean eta
abitzen naiz tirri-tarra
badakizue bizimodu hau
degula golfo xamarra.
Igo oholtzara eta agurra
hor sortzen da zoritxarra
bertsoarekin nahiko lan ez ta
mikroai heldu beharra. (bis)

A. Arzallus

Eta batzutan tonbolaren bat
panpin eta erregali
beste batzutan petardo batzuk
haur batzuk goruntz bidali.
Bertsolariak isiltasuna
nahi du bertsotan irauli
isiltasunik ez dagonean
ezin da ezer itzuli. (bis)

S. Lizaso

Gaur bezelaxe nunahitan ohi da
entzule talde fidela
beste batzuek gelditzen dira
paseatzen doazela.
Nahiz eta ohartu gure esanik
ulertzen ez digutela
guri begira gelditzen dira
hontza trenari bezela. (bis)

A. Illaro

Joan eta inork ez entzutea
badakit zer den ondo nik
eta badakit nor egoten den
sarri egin barik lorik.
Lehenengo rondan gauza onik nik
ez dut ez entzun askorik
baina Algortan ez da izaten
kexatzeko motiborik. (bis)

I. Zubeldia

Gauza txarrak dauzka ta gauza onak
nola bata ta bestea
hori baita onena
osasunarentzat.

A. Laburu

Medikuak ez zion
 hori esan pena!
 Baino bota diguzu
 egi nabarmena
 azal zazu zein duzun
 lauretan nahiena
 zuri-gorriaz edan
 zenuen gehiena.

J. Soto

Ez dut bat aukeratzen
 ez dut bat nahiago
 baina ibili behar
 nuenez pozago
 nere bihotza ere
 ikusita nago
 Enrike Martinena
 bezelaxe dago.

A. Laburu

Sagardua eskatu zun
 Realaren jiran
 Rioja Alavesa
 eder bat segidan
 txanpaina Athleticek
 jokatzearan ligan
 beste behin perdigoiak
 eskatu zizikidan.

J. Soto

Egin nahi nuelako
 bizitzakin *kaput!*
 Nola nafar mundua
 ez dugun Liliput.
 Baina aupa Osasuna
 lor dezakezu zuk.
 Hurrena patxarana
 eskatuko dizut.

BAIONA (2016-11-12)

*Bertsolariak: O. Barroso. M. Artetxe, S. Colina,
A. Arzallus, M. Arzallus eta X. Murua.*

Gai emailak: Joana Itzaina eta Iban Falxa.

S. Colina

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/148500>

Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko (XILABA) Bertsolari
Txapelketako txapeldunaren bukaerako agurra.

Neurria: Hamaseiko handia

Doinua: *Eguzkiak urtzen du han goian B*

Hain justu Trumpek jo duenean

mailuarekin iltzea

Marine Le Penek amestu ote

du Frantzia zuritzea?

Hiztegitatik kendu ote du

Rajoyk erabakitzea?

Normala ote da poliziak

senegaldar bat hiltzea?

Neri tokatu zait muga ertzean

sortu eta handitzea

ta ikasi dut igurtzi ezker

deusezten dela klitxea.

Gure herri honek badaki zer den

mututuei aditzea

ta harresiak atxeman arren

zubigintzan aritzea.

LEGAZPI (2016-11-18)

*Bertsolariak: M. Artola, A. Arzallus, O. Iguaran
eta A. Martin.*

Gai emalea: Ane Beloki.

Urtero antolatzen du Legazpiko Bertso Olariak bertso eskolak jaialdia, sasoi honetan. Latxartegi aretoan izan zen aurten ere, eta Ane Belokik jarri zituen gaiak.

M. Artola

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/14862c>

Gaia: Koilaratxo bat zara Mikel. Gaur irakiten dagon kafesnetan sartu zaituzte.

Neurria: Zortzikoa, handiaren moldekoa, 4 puntuz

Doinua: *Sorlekua utziz geroz*

M. Artola

Nahiz eta gaur jaiki naizen
sekula baino alaio
sukalde honetan bada
aizu horrenbeste saio
ur irakinez zipriztinduta
ene zer egingo zaio!
Ze kristogatik ez ote nintzan
tenedore xahar bat jaio?

Dena bero-bero daukat
aurrea eta atzea
zein ausartuko da orain
ene mingain laztantzea?
Honixe deitzen zaio nahi gabe
goizetan suak hartzea
soilik desio det nagusiai
eztarria erretzea.

Jeiki orduko badaukat
kontrara hainbat atake
ta holaxe segi behar
dena edaten dun arte
baino oraintxe konturatu naiz
eta neretzako kalte
azukrerikan ez du bota ta
zertarako sartu naute?



*Herriko plazan
Goizueta, 2016-08-25
Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)*

MARKINA-XEMEIN (2016-12-08)

*Bertsolariak: A. Egaña, A. Martin, S. Lizaso, On. Enbeita,
E. Lekue eta A. Arzallus.*

Gai emailea: Josu Goikoetxea.

Amaiur Elkarteak antolatuta, beste behin jendez bete zen Markinako pilotalekua, Kontzesio eguneko bertso jaialdia entzuteko.

S. Lizaso – E. Lekue

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/148740>

Gaia: Etxahun, zuk Sebastian gosez ikusi duzu, eta esaera txinatarra gogoratu duzu: “Emaiozu arrain bat norbaiti eta eguneko gosea kenduko diozu. Irakatsi arrantzan eta bizi osorako kenduko du gosea”. Kanabera eman diozu Sebastiani, baina gose izateaz aparte, Sebastian alferra da.

Neurria: Seiko txikia

Doinua: *Bertsuak jarri dizkat*

E. Lekue

Irakatsi gurean
hurreratu ta hara!
Erreka alboan geldi
geratu ez da ba?
Kainabera luzatu
eixu uretara. (bis)

S. Lizaso

Geldirik egotea
neuretzat mesede
nahiz gogo daukadan
saiaizean alde
erreka dagolako
hemen urik gabe. (bis)

E. Lekue

Ur gitxigaz be izan
leiteke trebea
nik bi harrapau dodaz
ta hau da legea:
afaldu behar daua
bakotxak berea. (bis)

S. Lizaso

Bakoitzak berea bai
ta noizko espero?
Dardarak sortzen dizkit
hainbeste endredo
saiatuko al gera
bazkaldu ta gero? (bis)

E. Lekue

Baina ezer ez dogu
lagun bazkaltzeko
beraz guk tripa hutsik
ta eztarria seko
ahalegindu ezean
ez gabiz ederto. (bis)

S. Lizaso

Zurekin ez da errez
laguna asmatzen
ahalegintzeak ez nau
gehiagi kezkatzen
ahaleginekin ez da
goserik asetzen. (bis)

E. Lekue

Nik honezkero ein dodaz
hiru bat armosu
gose aurpegiagaz
alperrik zagoz zu
amuko zizarea
jan beharko dozu. (bis)

S. Lizaso

Horrentzat beste plan bat
badaukat jadanik
zuk hartuko bazendu
arrantzako lanik
ondoan eserita
jango nituzke nik. (bis)

E. Lekue

Nik arrantzatuko dot
agian, agian
baina mahaian jazarri
ta horko aldian
nork prestatu behar ditu
gero afarian? (bis)

S. Lizaso

Dadukadan gose ta
premia tarteko
ez dago astirikan
etxera joateko
eta ni prest nengoke
gordinik jateko. (bis)

GETXO (2016-12-10)

*Bertsolariak: O. Iguaran, A. Arzallus, I. Ibarra
eta F. Paia.*

Gai emaila: Andoni Egaña.

AHOBI Gala antolatu zuen Algortako Bertsolari Eskolak (ALBE) Getxoko Jolas Toki jatetxean. Lehenengo aldiz, Urrezko Ahobi saria eman zuten, eta Gregorio Larrañaga “Mañukorta” bertsolariak jaso zuen “Bere ibilbide luze eta oparoagatik”.

O. Iguaran - A. Arzallus - I. Ibarra - F. Paia.

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/148874>

Gaia: Gaurko Ahobi gala honen protagonistari bertso bana kantatzeko eskatuko dizuet. Zein da zuentzat Mañukorta? Zer da Mañukorta?

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Mundu honetan holako gauzak*

F. Paia

Hortxe da Mañu gure Gregorio
aurrean dot aurpegia
beragaz beti gustora pasa
gendun bertso afaria
berari esker ikasi gendun
nik zelan edan whiskia
Amerikara joan ezker
zer dan kolore gorria...
Autentikoa pertsona eta
nire eredu haundia.

O. Iguaran

Bertso eskolan entzun nuen behin
bere izena ta hara!
Lehen une hartan bere hizkera
zan entenditzeko traba
ta pixkanaka hizkuntza bera
egiteko kapaz gara.
Mañu mitoa ezagutu nun
ta urte batzutan jada
lehenengo aldiz det aurrez aurre
Gregorio Larrañaga.

A. Arzallus

Uztapide hain osoa bazen
ta Xalbador hain sakona
gutxien uste zuten garaian
Jainkomendin Maradona
eta bidea luze egin du
hasi zen garatik hona
baina neretzat Mañukorta da
berezia bezain ona
bertsogintzari lehen ez zeukan
forma bat eman diona.

I. Ibarra

Nik herrikide dot Mañukorta
baserritarra umila
bere buruai deitzen deusana
Jainkomendiko mutila.
Gazte nintzela esaten eustan
“Emon niri egur pila”.
Referentea da niretzako
bertsotan oso abila
ta espero dot gazteentzako
horixe izan dadila.

A. Arzallus - F. Paia.

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/14899g>

Gaia: Bi txapeldun. Fredik, hala adierazi zuen, ez zela aurtengo Bizkaiko Txapelketara joango, txapel batekin aski zuela bere egoa asetzeko. Ametsek irakurri zituen deklarazio horiek eta irribarre bat loratu zitzaion.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

A. Arzallus

Zure “Ebano” eta” Tinpano”
oain bi urteko pelikula
gozatu nuen eta jakizu
ez zait ahantziko sekula
horrek ego bat beteagatik
Fredi zerorrek kalkula
iruditzen zait txorien gisan
zuk bi hego dauzkazula.

F. Paia

Hori esanda txapeldun jauna
serio dago berehala
kontutan hartu Frediren berbak
soilik nireak dirala
eta bizitzak erakutsi dit
niri zerbait mundiala:
denok dakigu txapelik gabe
gehiago gozatzen dala.

A. Arzallus

Baina ai Fredi zure azalpenak
hartu ezkerok kontuan
nere ustetan txapelkun batek
ari behar du kantuan
Peña ez zen joan txapelketara
haren ultzera santuan
zurea aitzaki berdina da
baina bertsio kultuan.

F. Paia

Txapelketa ta bertsolaritza
ez ote dira mundu bi?
Zenbakien inperio horrek
batzuk jartzen gaitu zuri.
Zuk zure bidetik jarraitu Amets
eta ez jarri urduri
zureak niri ez dit balio
ez eta nireak zuri.

A. Arzallus

Baina badute erdibide bat
eskuinak eta ezkerak
ez gara izango asmatutako
aitzaki hoi en maizterrak.
Orain ukatu nahi badituzu
portadak eta posterrak
zauden lekura irisi zara
txapelketari eskerrak.

F. Paia

Ahaztu ditzagun ezberdintasun
eta iritzien gerrak
kausalitate oro laguna
suerta litezke okerrak.
Nahiz txapel batek bertsolaritza
ezartzen ditun liderrak
ni txapelketara heldu nintzan
bertso eskolari eskerrak.

A. Arzallus

Ulertzen dizut neroni ere
pasa izan zait burutik
antisistema pentsamenduak
bizitzen ditu gertutik.
Hala ere uko egite hortaz
nik ez dut ulertzen tutik
zure moldearen defenda zazu
txapelketaren barrutik.

F. Paia

Baina txapelaren arau barruan
bertsoa ez dago salbu
errail batetik bide batetik
jardun beharra daukagu
eta bertsoak kirolen gisa
belodromoan dihardu.
Zuk ez zenuen egingo eta
baten batek egin behar du!

BILBO (2016-12-17)

*Bertsolariak: On. Enbeita, X. Galletebeitia, B.
Ugartetxea, I. Ajuriagojeaskoa, M. Amuriza, E. Lekue,
N. Ibarzabal eta J. Uria.*

Aurkezlea: Amaia Ugalde.
Gai emalea: Maite Berriozabal.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako txapeldunaren bukaerako agurra.

E. Lekue

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/148abs>

Neurria: Hamaseiko handia

Doinua: *Eguzkiak urtzen du han goian B*

Lehen eupada senide, lagun
ta etxeko lau izarrontzat
gogoan dodaz bertso eskola
ta eguezteneroko aitortzak
hasikerako maisu zirenak
ta gaurko ikasle zorrotzak
Almeriaraino joan-etorriko
bisita ein dau nire abotsak
ta berez doble pozten nauenez
inguruko danen pozak
bigundualdi bat hartu barri dau
nire harrizko bihotzak.
Hau euskal kultur zein herrigintzan
gogoz zabizienontzat
txapel bana ta gehiau merezi
dau zuetako bakotxak.

GALDAKAO (2016-12-23)

*Bertsolariak: E. Lekue, A. Egaña, M. Lujanbio,
M. Amuriza, O. Bartra eta A. Mendiluze.*

Gai emailea: Arkaitz Estiballes.

Udalaren Kultura Sailak antolatutako jaialdia, urterokoa. Torrezabal kultur etxean izan zen, eta Arkaitz Estiballes herritarrek jarri zituen gaiak.

*E. Lekue - A. Egaña - M. Lujanbio - M. Amuriza
O. Bartra - A. Mendiluze*

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/148be8>

Gaia: Urtarrilaren 20rako aspalditik daukazu bertso saio bat lotuta. Baina orain Bizkaiko txapelduna zara eta dei asko jasotzen dituzu. Atzeko horiek, bere herrietan antolatzen ari dira saioa eta Bizkaiko txapelduna nahi dute bertan. Zuek banan-banan saiatu Etxahun konbentzitzen.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Eguna pasa nekean eta*

M. Lujanbio

Nahiz eta Bilbon zazpi arerio
fin zenezkan parez pare
Euskal Herriko tourra hasten da
ta hartu zazu xuabe.
Badakizu guk ze pedigri ta
guk bertsoai ze aldare!
Bizkaiko txapeldun ezin da izan
Hernanin kantatu gabe. (bis)

E. Lekue

Orain artean danak ahiztuta
eta oin danak eskean
dei honek ez nau halan da bere
harrapatu tupustean.
Juxto Hernanin kantau behar dot
bai ba datorren astean
ta hilabetea bitan joatea
lartxu da nire ustea. (bis)

M. Amuriza

Gure auzoan daukagu meza
osteko saio itzela
ta aitak dino mantendu egin
behar zeunkela nibela
eta etortzen ez bazara ba
ipini eutsun bezela
kendu be bardin eingo deutsula
Etxahun Bizkaiko txapela. (bis)

E. Lekue

Berak txapela jantzi ta ein eustan
ai Miren nahiko mesede
baina behin jantzi eta hartzen dau
norberak nahiko botere.
Nahiz ta eliza kontuetan ni
ez nozuen horren trebe
zuen auzoan meza egongo da
hurrengo domekan ere. (bis)

A. Egaña

Zu engainatzen saiatu arren
atzeko beste lau putre
Zarautz berez da kanpoko eta
bertakoentzat disfrute.
Basarrinak bi, Egañanak lau
orain bat badezu zuk`e
txapelik gehien daukan herrira
etorri behar zenuke. (bis)

E. Lekue

Zarautz aldera hurreratzea
ederra ez da izango ba!
Baina hortik ere egin behar dot
nik Andoni eskapada:
hamaika txapel dozuez herrian
beraz kontuak atara!
Euskal Herrikoa irabaztean
hurreratuko naz hara. (bis)

O. Bartra

Akordau zaitez Bilbon izan zen
txapela ta txapelketa
horrexegaitik ein behar zenuke
zuk Bilbo handira buelta
berdinezina da nik oraintxe
eingo dizudan oferta:
beste inon ez duzu kantauko
San Mames lepo beteta. (bis)

E. Lekue

Akaso batzuk pagau egingo
leukie Oihana horregatik
baina ez nozu ni konbentzitu
ta esango det zergaitik:
joan erdira bertso bat bota
ein behar dana badakit
ta ni bertso bat kantatzearren
ez naz altxetan sofatik. (bis)

A. Mendiluze

Herri askotan jardun zera behin
mila aldiz Larrabetzun
baina Iruran ez eta ez dakit
aukera gal dezakezun.
Nahiz eta beste herritan ere
txaloa entzungo dezun
Iruran joko dizkizutenak
ez dituzu inoiz entzun. (bis)

E. Lekue

Beraz joan ta kantatu ezker
oroituko dot betiko
egia esan azken gonbite
hau badot berez begiko
baina ezezkoa esatea Aitor
pentsatu dot neurekiko:
non dagoan be ez dakit eta
ez nintzake iritsiko. (bis)



San Telmotan

Zumaia, 2016-04-01

Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

Argazkilaria: Xabier Azkue

ARAMAIO (2016-12-30)

*Bertsolariak: P. Abarrategi, S. Colina, I. Zubeldia
eta O. Iguaran.*

Gai emailak: Manex Agirre eta Xabi Igoa.

Aramaixoko Bertso Bskolak urtero antolatzen du Gabonetako bertso saioa, Aramaioko Udalaren laguntzarekin. Aurten ere lau bertsolari, eta nobedade gisa bi gai jartzaile.

S. Colina – I. Zubeldia

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/148cgk>

Gai emaila: Manex Agirre.

Gaia: Sustrai aita izan berri da, eta Iker esperientziaduna da horretan.
Sustrai aholku eske etorri da Ikerrengana.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

S. Colina

Gure semeak dauzka
hiru ile edo
ta ondo zaindu nahian
gabiltz ero-ero.
Ze krema eman behar zaio
ze belar jenero
ipurdian granoak
atera ezker? (bis)

I. Zubeldia

Ipurdian granoak
ta gorri kolore
horrek aldatzen ditu
aldarte ta umore.
Emaiozu *Nivea*
hiru kapa doble
ta bazpa're zuretzat
ere zerbait gorde. (bis)

S. Colina

Gaua heltzen denean
 eguna etenda
 haunditzen da aitaren
 zalantzen zerrenda
 negarrez hasi ezker
 senetik ertenda.
 Ume txikia nola
 desentxufatzen da? (bis)

I. Zubeldia

Ordun izerdi hotza
 dago bekokian
 desentxufatzeana
 utzi urrutian.
 Jokatu nahi badezu
 modu egokian
 entxufatu ezazu
 amaren titian. (bis)

S. Colina

Egun osoan daukat
 haurra papar kontra
 eta dagoeneko
 ahituta nago ta
 emango al didazu
 belarrira konta
 etxetik irteteko
 aitzakia sorta? (bis)

I. Zubeldia

Bada hamaika modu
 hamaika manera
 zeure kabi goxotik
 egiteko hega:
 tabako bila joan
 zintezke kalera
 hortarako erretzen
 hasi beharko zera. (bis)

S. Colina

Ni ongi moldatzen naiz
 zaintza alorretan
 pardelak aldatzen zein
 bestelako obretan
 baina duda haundi bat
 dut gaurkoz zorretan:
 Iker, zer moduz beste
 asunto horretan? (bis)

I. Zubeldia

Orain jo nahi dituzu
 txistu ta organo
 lasai ingo dizkizut
 ondolik bi plano:
 pelotarik bezela
 nabil sano-sano
 lehenago parejaka
 orain mano-mano.

SARIKETAK

DONOSTIA (2016-01-24)

Mikel Laboa Bertsolari Txapelketa (6. 2016. Donostia)

*Bertsolariak: U. Mendizabal, O. Iurramendi, E. Pagola,
E. Artetxe, S. Alkaiza eta A. Servier.*

Gai-emailea: Jon Eskudero.

Antiguako Jai Batzordeak eta Donostiako Kafe Antzokiak (DOKA) antolatu zuen Mikel Laboa Sariketa. Igande arratsaldean jokatu zen. Jon Eskudero aritu zen aurkezle lanetan eta Iñigo Legorburu, Aitor Gereñu eta Leire Beloki izan ziren epaile.

U. Mendizabal – E. Pagola

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/148dj0>

Gaia: Donostiako danborradan lehen aldiz atera zarete gaur. Konstituzio plazan zaudete. Oraitxe hasi da San Sebastian martxa.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Mendiko umea naiz*

E. Pagola

Inpresionantea da
guk daukagun martxa

U. Mendizabal

baina ritmuan gaizki
zabiltza zu antza

E. Pagola

ze San Sebastianekin
ez dago erraxa

U. Mendizabal

kupelak bilintzi ta
tanborrak balantza.

U. Mendizabal

Ez al zinan zu inoiz
solfeora joan?

E. Pagola

Piper egiten nuen
hara joandakoan

U. Mendizabal

tanborra hor daukazu
makilen ondoan

E. Pagola

nik nahiago nun egon
plazaren kanpoan.

E. Pagola

Nik uste nuen zela
kupela beste bat

U. Mendizabal

Ba hau bezelako bat
etxian badaukat

E. Pagola

ez baititra kabalak
donostiarren erak

U. Mendizabal

segi dezagun jotzen
zirt-zart eta zirt-zart.

U. Mendizabal

Iriyarena joko
omen degu gero

E. Pagola

nahiko trago edanda
behar honezkero.

U. Mendizabal

Han ritmua galtzerik
ez zazu espero

E. Pagola

zuk ritmo onarekin
joko dezu edo.

E. Pagola

Beti juaten zera
Unai berdiner

U. Mendizabal

noski hortako orain
baitegu aukera.

E. Pagola

Zure martxetatikan
irtengo al zera?

U. Mendizabal

ta horko zuzendaria
normala ote da?

U. Mendizabal

Eskua hortxe dabil
behera eta gora.

E. Pagola

Imaginazioakin
Unai da gustora

U. Mendizabal

eta zu ezin jua
bere erritmora

E. Pagola

zure gustoz juango
zinake ondora.

E. Pagola

Gora ta behera aspaldi
ibiltzen al zera?

U. Mendizabal

Bai ta hori neretzat
sarri da galera

E. Pagola

lehen aipatu dituzun
tanborren antzera

U. Mendizabal

tanborra juaz guazen
Antiguo aldera.

U. Mendizabal

Bueno hau omen degu
azkeneko pieza.

E. Pagola

Holako bi piezekin
ez dago errexa!

U. Mendizabal

Martxa gaurkuan degu
martxa aldrebesa

E. Pagola

hasten errexa eta
bukatzen nekeza.

GETXO (2016-02-12)

Abra Saria (15. 2016. Getxo)

*Bertsolariak: A. Servier, M. Akizu, A. Bizkarra, S. Robles,
P. Loizaga eta A. Rubio.*

Gai-emailea: Jone Uria.

Martin Aramendi, Nerea Bruño eta Joseba Santxo epaile zirela jokatu zen, afalostean, XV. Abra Sariketa. Algortako Azebarri Kultur Elkartean 70 lagun inguru elkartu ziren mahaiaren bueltan afaltzeko, eta beste hainbat lagun afalostean gerturatu ziren saioa entzutera.

A. Servier

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/148elc>

Gaia: Zalantza askorekin hartu zenuen erabakia. Gaur argi ikusi duzu asmatu zenuela.

Neurria: Hamabiko handia

Doinua: *Haizea dator ifarraldetik*

Boladatxo bat igaro nuen
nere sentipenak gordez
barruko harra elikatuaz
kanpora atera ordezt.
Ostegun batez Kafe Antzokian
hurbildu zinen adoretz
nere bisaia jantzi egin zen
ilusioz ta koloretz.
Gero harremana hasitakoan
baneukan aski ondoez
zalantza asko neuzkan buruan
serio hasi edo ez.

Une batzutan sentitu arren
ez genuela lortuko
baldintzak argi jarri ditugu
bilakatzean gertuko.
Baina bikote bihurtu gara
konpromisoa ta punto
ordea hori gureganatzen
inoiz ez dugu galduko
elkarrikerako errespetua
biok dugu hainbat truko.
Gauza bakarra argi daukat nik:
ez naizela damutuko.

Kontrolgabeko harreman batek
ekartzen duen jarduna
besteentzako izan liteke
ulertezina, iluna.
Sarri maitasun romantikoa
eredutzat daukaguna
bihur liteke askatasuna
ukatzeko erresuma.
Ia egunero hautatzen dugu
hartu edo ez maitasuna
erabaki hau baita edonoiz
aldatu dezakeguna.

GABIRIA (2016-04-02)

Osinalde Saria (45. 2016. Gabiria)

*Bertsolariak: U. Mendizabal, M. Akizu, J. Gurrutxaga,
H. Mujika, E. Araiztegi eta M. Arregi.*

Gai-emailea: Jokin Murua.

Osinalde Elkarteak bete egin zen bertso saiorako. Afaria bederatzietan izan zen, 125 lagun elkartu ziren, eta ondoren saiorako, 23:00etan, beste 30 lagun batu ziren.

Ohiturari jarraituz, mikrofonorik gabe egin zuten saioa bertsolariek. Grabagailuak jarri ziren giro-soinua hartzeko.

U. Mendizabal - H. Mujika

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/148fno>

Gaia: Unai, gaur operatu behar zaituzte. Oraintxe etorri da Haritz, zure zirujaua. Urduri dagoela konturatu zara.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Igaran egun batez*

U. Mendizabal

Edan ditu sei kafe
edan du *Red Bulla*
bateko atxisa ta
besteko eztula...
Esaidazu faborez
ta ez disimula
mobila bibrazion
jarria dezula.

H. Mujika

Holakuak tokatu
ohi dira tarteka
aurrez egin dizkizut
hogeia azterketa
ta orain ni ere nago
dardarez beteta.
Lasai zaitetz urduri
jartzen nauzu eta.

U. Mendizabal

Eskuak dar-dar, dar-dar
 erdi basapizti
 nere odoleko datu
 guztiak dakizki.
 Baina utzi itzazu
 lau bisturi izpi
 zeren egia esan
 ez nago hain gaizki.

U. Mendizabal

Bazpa're prepatuta
 dauka furgoneta
 kamillan geatu ezker
 bazpa're zer gerta
 beste baten eingo det
 gela honta buelta
Cola Cao gosalduta
 etorri naiz eta.

H. Mujika

Ondo ere ez zaude
 zure min eta gaitz
 sendatzeko oraindik
 bagabiltza garaiz.
 Erantzukizun latza
 izaten degu maiz
 hiltzen bazera're ni
 enteratuko naiz.

H. Mujika

Denek entzungo zuten
 zure garraxia
 orain honek ez al du
 lehengo garrantzia?
 Askoz hobia dezu
 orain ixiltzia
 hobia baita tripa
 beteta hiltzia.



Ikerketen aurkezpena

Amasa-Villabona, 2016-11-10

Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

ZARAUTZ (2016-09-02)

Lizardi Saria (40. 2016. Zarautz)

*Bertsolariak: A. Igartzabal “Potto”, A. Salegi,
A. Servier, M. Akizu, U. Mendizabal eta E. Pagola.*

Gai-emailea: Ion Zaldua.

Ostiral gauean izan zen, Modelo antzokian.

U. Mendizabal

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/148gg4>

Gaia: Argazkia ikusi duzunean, taupadak bizkortu zaizkizu

Neurria: Hamabiko handia

Doinua: *Arratsaldeon eta musu bat*

U. Mendizabal

Atzo gauen zapaldu nuen
malekoi aldeko jira
nere bidean gurutzatu ta
buruai eragin bira.

Ohartu nintzen “Neska polit hau
nigan ai! pizten ari da”
eta *Facebooken* bilatu nuen
oraingo modan neurrira
Hara argazkia topatu det ta
taupadak salto ta biba!
Jada ordubete hemen pasa det
argazkiari begira. (bis)

Guztiak dira txori kantuak
 orfeoia ta orkesta
 nere barruan piztu berri da
 sentipenen pila extra.
 Baina nerekin nahi ote duen
 barrenean daukat kezka
 zalantza eta sentimenduek
 bihotzean a ze festa!
 “Kafe txiki bat hartuko al degu?
 Baietz esaidazu neska!”
 Baina zergaitik ari ote naiz
 argazkiari galdezka? (bis)

Bera Zarautzen bizi omen da.
 Koño! Baneukan susmoa.
 Berekin zerbait intentatzea
 hori da nere asmoa.
 Baina zalantzan egote hauxe
 nola ez degun sana
 ezetza leike abismoa ta
 baiezkua orgasmoa.
 “Bainan alperrik ari haiz motel
 ta uztak telefonoa”.
 Alkandora bat guapo jantzita
 berriz malekoira noa.

ERREENTERIA (2016-12-08)

Xenpelar Saria (23. 2016. Erreenteria)

Bertsolariak: M. Akizu, A. Igartzabal, B. Mujika, E. Pagola, A. Servier eta G. Urteaga.

Gai-emailea: Haritz Casabal.

Arratsaldeko bostetan hasi eta zortzietan amaitu zen Niessen kulturgunean XXIII. Xenpelar Sariaren finala. Julian Albistur, Iñigo Legorburu, Mikel Lersundi eta Patxi Petrirena izan ziren epaile. Saioa amaitu eta sariak banatu aurretik, Jon Maiari omenaldia egin zioten, bera izan baitzen IX. eta X. Xenpelar Sariak irabazi zituen 1989an eta 1990ean. Berak jarri zion txapela irabazleari.

M. Akizu

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/148hsg>

Lehen puntua emanda

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

H. Casabal

Txapelarekin ez al
duzu amets egin?

M. Akizu

Bai ta izan zen ostegun
batez Erreenterin
egin nahiko nituzke
hamaika ahalegin
amestua egia
bilakatu dedin.

M. Akizu

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/148ius>

Hitza gaitzat emanda

Hitza: Pena

Neurria: Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, 9 puntuz

Doinua: *Betroiarena A*

Esan gabeko hitzak
bertatik bertara
bihotza hautsi dizun
azken balada
ondoan zeneukena
falta zaizu jada.
Bai, penagarria da
ta pena zer da ba?
Hiru begirada
bidean bi traba
ta sentitzen gara
galtzaile gisara.
Garaipena maiz pena
garaitzea da. (bis)

M. Akizu - G. Urteaga

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/148k18>

Gaia: Itsua eta bere txakur-gidaria zarete. Zu, Maialen, itsua, eta, zu, Gemma, txakurra. Azken minutuetan Maialen behin eta berriz tupust egiten ari da.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Kantatzera nijoa*

M. Akizu

Txakur malapartatu
honekin naiz kexu
ia egin baititut
hogeï estropezu.
Bai, oso ondo, hola
segi dezakezu
eta nik ez baina zuk
ikusiko dezu! (bis)

G. Urteaga

Zerbait esango dizut
gainera benetan
ahalegindu zaitez
nahi ba'zu horretan
lau aldiz trabau zera
bi minutun bueltan.
Barka ni zakurra naiz
zentzu guztietan. (bis)

M. Akizu

Esanagatik hola
gaizki goazela
dirudieneg segï
nahi luke horrela.
Nere txakurtxo alper
muturbeltz motela
uste det *itsumiso*
deklaratu dela. (bis)

G. Urteaga

Esan dezunarekin
ene zenbat kexu!
Graziosita zaude
a ze konpromezu!
Hola segï nahiean
baldin bazaude zu
errepide erdian
bukatuko dezu. (bis)

M. Akizu

Errepide erdian
ez utzi horratik
nahiko poste probatu
det gaurkoagatik.
Errua nerea da
ta jakin badakit
Eltziegoko txakur bat
erosteagatik. (bis)

G. Urteaga

Ba bai Eltziegon nintzan
egun baten jaio
eta ordutik nabil
oso-oso iaio.
Koska egingo diot
beai ze arraio!
Agian bista ere
bueltatuko zaio. (bis)



Xabier Amurizaren agurra

Altzo, 2016-04-29

Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

SAIOEN AURKIBIDEA

or.

HERNANI (2016-01-02)	77
A. Egaña, A. Laburu, B. Gaztelumendi, M. Lujanbio, E. Pagola eta O. Iurramendi.	
OÑATI (2016-01-05)	81
A. Egaña, B. Gaztelumendi, A. Martin, A. Mendiluze, A.M. Peñagarikano eta A. Sarriegi.	
AMURRIO (2016-01-10)	85
M. Lujanbio, B. Gaztelumendi, A. Arzallus, U. Iturriaga, A. Sarriegi, S. Colina, I. Elortza eta A. Mendiluze.	
TOLOSA (2016-01-23)	89
M. Lujanbio, B. Gaztelumendi, A. Egaña, U. Iturriaga, U. Mendizabal eta A. Mendiluze.	
ZEANURI (2016-01-24)	97
A. Mendiluze, J. Maia, F. Paia, A. Arzallus eta A. Estiballes.	
DONOSTIA (2016-01-30)	100
M. Lujanbio, B. Gaztelumendi, A. Labaka eta M. Amuriza.	
IRUN (2016-02-11)	106
Iz. Zelaia, A. Martin, J. Zelaia eta M. Goigana.	
LEZO (2016-02-13)	108
A. Martin, A. Egaña, M. Akizu eta M. Lujanbio.	
DONOSTIA (2016-02-19)	110
M. Lujanbio, E. Pagola, A. Mendiluze eta A. Egaña.	
ANDOAIN (2016-02-28)	112
B. Gaztelumendi, M. Lujanbio, A. Mendiluze, O. Iguaran, U. Muñoa eta A. Martin.	
BIRIATU (2016-03-06)	116
J. Maia, A. Arzallus, M. Lujanbio, J. Soto eta A. Egaña.	

ELIZONDO (2016-03-06)	119
A. Agirre, O. Iguaran, A. Labaka eta A. Martin.	
AMASA-VILLABONA (2016-03-12)	122
A. Laburu, A. Agirre, J. Soto, O. Iguaran, B. Gaztelumendi eta A. Labaka.	
BERGARA (2016-03-18)	127
E. Artetxe, O. Bartra, M. Lujanbio, B. Gaztelumendi eta A. Egaña.	
IGORRE (2016-03-19)	129
On. Enbetia, M. Lujanbio, A. Arzallus eta B. Gaztelumendi.	
ZUMAIA (2016-04-01)	131
A. Egaña, O. Iguaran, I. Zubeldia, J. Maia, A. Arzallus eta B. Gaztelumendi.	
ZEGAMA (2016-04-03)	135
A. Egaña, I. Zubeldia, M. Amuriza eta O. Iguaran.	
GASTEIZ (2016-04-21)	138
M. Lujanbio, On. Enbeitia, I. Viñaspre, O. Perea, A. Estiballes eta J. Maia.	
ARAMAIO (2016-04-23)	142
X. Igoa eta B. Gaztelumendi.	
ALTZO (2016-04-29)	144
X. Amuriza eta M. Amuriza.	
ABADIÑO (2016-05-06)	148
A.M. Peñagarikano, M. Lujanbio, I. Elortza eta J. Uria.	
BILBO (2016-05-07)	152
A. Egaña, B. Gaztelumendi, O. Iguaran eta N. Elustondo.	
ONDARROA (2016-05-13)	154
M. Amuriza, M. Artetxe, I. Murua eta B. Gaztelumendi.	

ANTZUOLA (2016-05-20)	157
M. Artola, U. Mendizabal, U. Agirre eta A. Martin.	
ZALLA (2016-05-20)	160
E. Lekue, A. Elortegi, B. Amezaga, N. Cortada eta J. Soto.	
ANOETA (2016-05-27)	162
B. Gaztelumendi, A. Martin, U. Agirre, A. Laburu, I. Apalategi eta O. Iguaran.	
SORALUZE (2016-06-03)	165
B. Gaztelumendi, J. Maia, A. Arzallus eta O. Iguaran	
BILBO (2016-06-08)	167
U. Alberdi eta A. Egaña.	
BERGARA (2016-06-10)	169
O. Bartra, M. Amuriza, O. Iguaran eta On. Enbeita.	
ANDOAIN (2016-06-24)	171
A. Egaña, A. Laburu, M. Amuriza, On. Enbeita, A. Mendiluze eta A. Agirre.	
MUNGIA (2016-06-29)	173
A. Estiballes, A. Egaña. O. Iguaran eta J. Larrinaga.	
SOPELA (2016-07-02)	177
U. Agirre, I. Elortza, P. Loizaga eta J. Soto.	
GETXO (2016-07-06)	179
F. Paia , A. Martin, J. Uria , A. Egaña , I. Elortza eta J. Soto.	
IRUÑEA (2016-07-12)	182
A. Arzallus, A. Fuentes “Itturri”, E. Lazkoz eta M. Lujanbio.	
DONOSTIA (2016-07-24)	184
M. Amuriza, A. Egaña, B. Gaztelumendi eta J. Maia.	

ELIZONDO (2016-07-25)	188
A. Arzallus, O. Iguaran, J.M. Irazu eta M. Lujanbio	
GETXO (2016-07-30)	191
S. Lizaso, A. Illaro, I. Zubeldia eta A. Arzallus	
GASTEIZ (2016-08-09)	195
A. Arzallus, O. Perea, J. Zelaieta eta I. Mendiguren.	
ALKIZA (2016-09-08)	199
O. Iguaran, A. Arzallus, A. Egaña, A. Laburu, M. Lujanbio eta S. Lizaso.	
HELETA (2016-09-11)	203
U. Alberdi, A. Arzallus, O. Barroso eta, M. Lujanbio.	
IRURA (2016-09-29)	207
A. Laburu, A. Egaña, O. Iguaran eta A. Labaka.	
LOIU (2016-09-29)	209
E. Lekue, X. Paia, J.M. Irazu eta A. Mendiluze.	
DONOSTIA (2016-10-15)	211
A. Egaña, I. Elortza, M. Lujanbio eta A. Sarriegi.	
ERREENTERIA (2016-10-15)	219
U. Iturriaga, S. Colina, B. Gaztelumendi, A. Martin, A. Mendiluze eta J. Maia.	
IRUÑEA (2016-10-20)	222
A. Karrika, O. Iguaran, J. Maia, A. Martin, J. Zelaieta eta S. Colina.	

DURANGO (2016-10-21)	224
I. Elortza, J. Soto, A. Egaña, A.M. Peñagarikano, J. Uria eta O. Iguaran.	
ONDARROA (2016-10-28)	230
N. Elustondo, E. Pagola eta O. Iguaran.	
ERMUA (2016-11-04)	233
U. Alberdi, A. Arzallus, N. Ibarzabal, U. Iturriaga, A. Martin eta A. Egaña.	
IRUÑEA (2016-11-10)	235
S. Alkaiza, A. Arzallus, B. Gaztelumendi, J. Soto, U. Iturriaga eta A. Laburu.	
BAIONA (2016-11-12)	240
O. Barroso, M. Artetxe, S. Colina, A. Arzallus, M. Arzallus eta X. Murua.	
LEGAZPI (2016-11-18)	241
M. Artola, A. Arzallus, O. Iguaran eta A. Martin.	
MARKINA-XEMEIN (2016-12-08)	243
A. Egaña, A. Martin, S. Lizaso, On. Enbeita, E. Lekue eta A. Arzallus.	
GETXO (2016-12-10)	245
O. Iguaran, A. Arzallus, I. Ibarra eta F. Paia.	
BILBO (2016-12-17)	248
On. Enbeita, X. Gallettebeitia, B. Ugartetxea, I. Ajuriagojeaskoa, M. Amuriza, E. Lekue, N. Ibarzabal eta J. Uria.	
GALDAKAO (2016-12-23)	249
E. Lekue, A. Egaña, M. Lujanbio, M. Amuriza, O. Bartra eta A. Mendiluze.	
ARAMAIO (2016-12-30)	252
P. Abarrategi, S. Colina, I. Zubeldia eta O. Iguaran.	

BAT-BATEKO SARIKETAK

or.

DONOSTIA (2016-01-24)

256

Mikel Laboa Bertsolari Txapelketa (6. 2016. Donostia)

U. Mendizabal, O. Iurramendi, E. Pagola, E. Artetxe, S. Alkaiza eta A. Servier.

GETXO (2016-02-12)

258

Abra Saria (15. 2016. Getxo)

A. Servier, M. Akizu, A. Bizkarra, S. Robles, P. Loizaga eta A. Rubio.

GABIRIA (2016-04-02)

260

Osinalde Saria (45. 2016. Gabiria)

U. Mendizabal, M. Akizu, J. Gurrutxaga, H. Mujika, E. Araiztegi eta M. Arregi.

ZARAUTZ (2016-09-02)

262

Lizardi Saria (40. 2016. Zarautz)

A. Igartzabal "Potto", A. Salegi, A. Servier, M. Akizu, U. Mendizabal eta E. Pagola.

ERRETERIA (2016-12-08)

264

Xenpelar Saria (23. 2016. Erretereria)

M. Akizu, A. Igartzabal, B. Mujika, E. Pagola, A. Servier eta G. Urteaga.



Udaberriko bertso saioa

Bilbo, 2016-05-07

Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

BERTSOALDI HAUTATUAK

CDan eta <http://bdb.bertsozale.com>

HERNANI (2016-01-02)

A. Laburu eta B. Gaztelumendi.

OÑATI (2016-01-05)

A. Egaña eta A.M. Peñagarikano.

A. Egaña eta A. Mendiluze.

AMURRIO (2016-01-10)

U. Iturriaga eta A. Sarriegi.

S. Colina eta I. Elortza.

TOLOSA (2016-01-23)

U. Mendizabal eta A. Mendiluze.

M. Lujanbio eta U. Iturriaga.

DONOSTIA (2016-01-30)

B. Gaztelumendi, A. Labaka eta M. Amuriza.

M. Amuriza.

IRUN (2016-02-11)

A. Martin.

LEZO (2016-02-13)

A. Martin eta M. Akizu.

DONOSTIA (2016-02-19)

M. Lujanbio.

ANDOAIN (2016-02-28)

M. Lujanbio eta A. Mendiluze.

BIRIATU (2016-03-06)

J. Maia, A. Arzallus, M. Lujanbio, J. Soto eta A. Egaña.

ELIZONDO (2016-03-06)

A. Agirre, O. Iguaran, A. Labaka eta A. Martin.

AMASA-VILLABONA (2016-03-12)

A. Laburu eta J. Soto.

BERGARA (2016-03-18)

O. Bartra eta M. Lujanbio.

IGORRE (2016-03-19)

On. Enbetia eta A. Arzallus.

ZEGAMA (2016-04-03)

A. Egaña, I. Zubeldia, M. Amuriza eta O. Iguaran.
M. Amuriza eta O. Iguaran.

GASTEIZ (2016-04-21)

M. Lujanbio, On. Enbeita, I. Viñaspre, O. Perea, A.
Estiballes eta J. Maia.

ARAMAIO (2016-04-23)

B. Gaztelumendi.

ALTZO (2016-04-29)

X. Amuriza eta M. Amuriza.

ABADIÑO (2016-05-06)

A.M. Peñagarikano eta I. Elortza.

ONDARROA (2016-05-13)

I. Murua eta B. Gaztelumendi.

ANTZUOLA (2016-05-20)

U. Agirre eta A. Martin.

U. Agirre.

ANOETA (2016-05-27)

B. Gaztelumendi, A. Martin, I. Apalategi eta O. Iguaran.

BILBO (2016-06-08)

U. Alberdi.

BERGARA (2016-06-10)

O. Bartra eta On. Enbeita.

ANDOAIN (2016-06-24)

A. Mendiluze.

MUNGIA (2016-06-29)

A. Estiballes.

DONOSTIA (2016-07-24)

J. Maia.

ELIZONDO (2016-07-25)

O. Iguaran eta J.M. Irazu.

GETXO (2016-07-30)

S. Lizaso, A. Illaro, I. Zubeldia eta A. Arzallus

GASTEIZ (2016-08-09)

O. Perea eta J. Zelaieta.

ALKIZA (2016-09-08)

A. Egaña eta S. Lizaso.

M. Lujanbio eta S. Lizaso.

HELETA (2016-09-11)

A. Arzallus eta O. Barroso.

A. Arzallus.

IRURA (2016-09-29)

A. Egaña.

LOIU (2016-09-29)

E. Lekue eta J.M. Irazu.

ERREENTERIA (2016-10-15)

U. Iturriaga, S. Colina, B. Gaztelumendi, A. Martin,

A. Mendiluze eta J. Maia.

IRUÑEA (2016-10-20)

J. Zelaieta eta S. Colina.

DURANGO (2016-10-21)

I. Elortza eta J. Soto.

O. Iguaran.

IRUÑEA (2016-11-10)

S. Alkaiza eta J. Soto.

A. Arzallus.

LEGAZPI (2016-11-18)

M. Artola.

MARKINA-XEMEIN (2016-12-08)

S. Lizaso eta E. Lekue.

ARAMAIO (2016-12-30)

S. Colina eta I. Zubeldia.

LIBURUAN BERTSORIK DUTEN BERTSOLARIEN AURKIBIDEA

Agirre, A.	119 (BI), 122 (BI), 125 (BI)
Agirre, U.	157 (BI), 159 (B), 177 (BI)
Akizu, M.	108 (BI), 264 (B), 265 (B), 266 (BI)
Alberdi, U.	167 (B), 233 (BI)
Alkaiza, S.	235 (BI)
Amuriza, M.	101 (BI), 105 (B), 135 (BI), 136 (BI), 144 (BI), 147 (BI), 249 (BI)
Amuriza, X.....	144 (BI), 147 (BI)
Apalategi, I.....	162 (BI)
Artola, M.	241 (B)
Arzallus, A. ...	116 (BI), 129 (BI), 165 (BI), 174 (BI), 191 (BI), 197 (BI), 203 (B), 205 (BI), 237 (B), 245 (BI), 246 (BI)
Barroso, O.....	205 (BI)
Bartra, O.	127 (BI), 169 (BI), 249 (BI)
Colina, S.	87 (BI), 219 (B), 222 (BI), 240 (B), 252 (BI)
Egaña, A.	81 (BI), 83 (P), 116 (BI), 131 (BI), 135 (BI), 152 (BI), 179 (BI), 199 (BI), 207 (B), 211 (BI), 249 (BI)
Elortza, I.	87 (BI), 150 (BI), 179 (BI), 216 (BI), 225 (BI)
Elustondo, N.	152 (BI), 230 (BI)
Enbeita, On.	129 (BI), 138 (BI), 169 (BI)
Estiballes, A.	97 (BI), 138 (BI), 173 (B), 174 (BI)
Fuentes, A. “Itturri”.....	182 (BI)
Gaztelumendi, B .	77 (BI), 79 (BI), 89 (B), 101 (BI), 125 (BI), 142 (BI), 154 (BI), 162 (BI), 165 (B), 186 (B), 219 (BI)
Ibarra, I.	245 (BI)
Iguaran O.	119 (BI), 125 (BI), 131 (BI), 135 (BI), 136 (BI), 162 (BI), 165 (BI), 188 (BI), 228 (B), 245 (BI)

Illaro, A.	191 (BI)
Irazu, J.M.	188 (BI), 209 (BI)
Iturriaga, U.	85 (BI), 95 (BI), 219 (BI)
Labaka, A.	101 (BI), 119 (BI), 125 (BI)
Laburu, A.	77 (BI), 122 (BI), 125 (BI), 238 (BI)
Lazkoz, E.	182 (BI)
Lekue, E.	209 (BI), 243 (BI), 248 (B), 249 (BI)
Lizaso, S.	191 (BI), 193 (PE), 199 (BI), 201 (BI), 243 (BI)
Lujanbio, M.	79 (BI), 95 (BI), 110 (PE), 112 (BI), 116 (BI), 127 (BI), 138 (BI), 148 (BI), 201 (BI), 211 (BI), 249 (BI)
Maia, J.	116 (BI), 133 (BI), 138 (BI), 165 (BI), 184 (B), 219 (BI)
Martin, A.	106 (B), 108 (BI), 119 (PE), 157 (BI), 162 (BI), 179 (BI), 219 (BI), 233 (BI)
Mendiguren I.	197 (BI)
Mendiluze, A.	83 (P), 92 (PE), 97 (BI), 112 (BI), 114 (PE), 171 (B), 219 (BI), 249 (BI)
Mendizabal, U.	92 (PE), 256 (P), 260 (BI), 262 (B)
Mujika H.	260 (BI)
Murua, I.	154 (BI),
Pagola, E.	230 (BI), 256 (P)
Paia, F.	179 (BI), 245 (BI), 246 (BI)
Peñagarikano, A.M.	81 (BI), 150 (BI)
Perea, O.	138 (BI), 195 (BI), 197 (BI)
Sarriegi, A.	85 (BI), 216 (P)
Soto, J.	116 (B), 122 (BI), 125 (BI), 160 (B), 177 (BI), 179 (BI), 225 (BI), 235 (BI), 238 (BI)
Uria, J.	148 (BI), 179 (BI)
Urteaga G.	266 (BI)
Viñaspre, I.	138 (BI)

Zelaieta, J.	195 (BI), 197 (BI), 222 (BI)
Zubeldia, I.	132 (BI), 135 (BI), 191 (BI), 252 (BI)

IKURRAK:

(B): Gaia emanda bakarka egindako saioa.

(BI): Gaia emanda binaka -edo talde handiagoan- egindako saioa.

(P): Puntutan egindako saioa.

(PE): Lehen edo azken puntua emanda egindako saioa.

(H): Gainerako ariketak

(GL): Gai librean egindako saioa.

IZEN ETA IZENGOITIEN DESKRIBAPENA

Zerrenda hau liburuan agertzen diren izen laburdura eta izengoitiei dagokie.

Liburuan	Izen deiturak	Herria
Abarrategi, P.	Peru Abarrategi Sarrionaindia	Aramaio
Agirre, A.	Amaia Agirre Arrastoa	Villabona
Agirre, U.	Unai Agirre Goia	Hernani
Ajuriagojeaskoa, I.	Ibon Ajuriagojeaskoa Garmendia	Gernika-Lumo
Akizu, M.	Maialen Akizu Bidegain	Urretxu
Alberdi, U.	Uxue Alberdi Estibaritz	Elgoibar
Alkaiza, S.	Saioa Alkaiza Guallar	Iruñea
Amezaga, B.	Beñat Amezaga de Diego	Zalla
Amuriza, M.	Miren Amuriza Plaza	Berriz
Amuriza, X.	Xabier Amuriza Sarrionandia	Etxano
Apalategi, I.	Iñaki Apalategi Astigarraga	Beasain
Araiztegi, E.	Eneko Araiztegi Agirre	Segura
Arregi, M.	Maidar Agirre Markuleta	Oñati
Artetxe, E.	Eneritz Artetxe Eizagirre	Azkoitia
Artetxe, M.	Miren Artetxe Sarasola	Hendaia
Artola, M.	Mikel Artola Izagirre	Alegia
Arzallus, A.	Amets Arzallus Antia	Hendaia
Arzallus, M.	Maddalen Arzallus Antia	Hendaia
Barroso, O.	Odei Barroso Gomila	Urruñia
Bartra, O.	Oihana Bartra Arenas	Bilbo
Bizkarra, A.	Aitor Bizkarra Ruiz	Abadiño
Colina, S.	Sustrai Colina Akordarrementeria	Urruñia
Cortada, N.	Nuria Cortada Ibañez	Muskiz
Egaña, A.	Andoni Egaña Makazaga	Zarautz
Elortegi, A.	Ander Elortegi Garatea	Gernika-Lumo
Elortza, I.	Igor Elortza Aranoa	Durango
Elustondo, N.	Nerea Elustondo Plazaola	Legazpi
Enbeita, On.	Onintza Enbeita Maguregi	Muxika
Estiballes, A.	Arkaitz Estiballes Ormaetxea	Galdakao

Fuentes, A. "Itturri"	Ander Fuentes Mujika	Zubieta
Gallettebeitia, X.	Xabat Gallettebeitia Abaroa	Lekeitio
Gaztelumendi, B.	Beñat Gaztelumendi Arandia	Donostia
Goigana, M.	Manu Goigana Bengoetxea	Irun
Gurrutxaga, J.	Jon Gurrutxaga Urbietia	Azpeitia
Ibarra, I.	Iratxe Ibarra Foruria	Markina-Xemein
Ibarzabal, N.	Nerea Ibarzabal Salegi	Markina-Xemein
Igartzabal, A.	Aratz Igartzabal Bidegain	Gabiria
Igoa, X.	Xabier Igoa Eriz	Aramaio
Iguaran O.	Oihana Iguaran Barandiaran	Villabona
Illaro, A.	Arrate Illaro Etxebarria	Getxo
Irazu, J.M.	Jexux Mari Irazu Muñoa	Larraul
Iturriaga, U.	Unai Iturriaga Zuaza-Artaza	Durango
Iurramendi O.	Oier Iurramendi Etxeberria	Donostia
Karrika, A.	Aimar Karrika Iribarren	Auritz
Labaka, A.	Ane Labaka Mayoz	Lasarte-Oria
Laburu, A.	Agin Laburu Rezola	Astigarraga
Larrinaga, J.	Jone Larrinaga Dañobeitia	Mungia
Lazkoz, E.	Eneko Lazkoz Martinez	Etxarri-Aranatz
Lekue, E.	Etxahun Lekue Etxebarria	Larrabetzu
Lizaso, S.	Sebastian Lizaso Iraola	Azpeitia
Loizaga, P.	Paule Ixiar Loizaga Legarra	Sopela
Lujanbio, M.	Maialen Lujanbio Zugasti	Hernani
Maia, J.	Jon Maia Soria	Zumaia
Martin, A.	Alaia Martin Etxebeste	Oiartzun
Mendiguren I.	Izar Mendiguren Cosgaya	Laudio
Mendiluze, A.	Aitor Mendiluze Gonzalez	Andoain
Mendizabal, U.	Unai Mendizabal Jauregi	Zizurkil
Mujika H.	Haritz Mujika Lasa	Asteasu
Mujika, B.	Beñat Mujika Izagirre	Donostia
Muñoa, U.	Unai Muñoa Amundarain	Lasarte-Oria
Murua, I.	Iñaki Murua Jauregi	Gabirira
Murua, X.	Xumai Murua Berra	Urruña
Pagola, E.	Elixabet Pagola Apezetxea	Hernani
Paia, F.	Alfredo Paia Ruiz "Fredí"	Algorta (Getxo)
Paya, X.	Xabi Paya Ruiz	Algorta (Getxo)
Peñagarikano, A.M.	Anjel Mari Peñagarikano	Anoeta
Perea, O.	Oihane Perea Perez de Mendiola	Gasteiz

Robles, S.	Sarai Robles Vitas	Iruñea
Rubio, A.	Asier Rubio Hidalgo	Luiaondo
Salegi, A.	Aitor Salegi Martija	Zestoa
Sarriegi, A.	Aitor Sarriegi Galparsoro	Beasain
Soto, J.	Julio Soto Ezkurdia	Gorriti
Ugartetxea, B.	Beñat Ugartetxea Ostolaza	Mallabia
Uria, J.	Jone Uria Albizuri	Getxo
Urteaga G.	Urteaga Garmendia Gemma	Beasain
Viñaspre, I.	Iñaki Viñaspre Simon	Abetxuku
Zelaia, Iz.	Izarne Zelaia Arratibel	Donostia
Zelaieta, J.	Julen Zelaieta Iriarte	Bera
Zubeldia, I.	Iker Zubeldia Katarain	Zegama

Bapatean2016



Bapatean 2016